ttipi-ttapa

EGUBERRIETAKO gehigarria / **27**

BADATOZ OLENTZERO ETA MARI DOMINGI!

Herri gehienetan abenduaren 24an hartuko dute Mari Domingi eta Olentzeroren bisita. Baina Sarara lehenagotik etorriko dira, abenduaren 22an.

Medikuntza arloko ikerketan burubelarri

Hainbat ikerketetan parte hartu du **Nerea Zabaleta** leitzarrak. Urtarrilean doktoretza ondoko ikasketak hasiko ditu Bostonen / **8**



Josu Goia zena omenduko dute abenduaren 16an Beran / 14

Bortzirietako Arreta Psikologikorako Zerbitzua 2017az geroztik lanean / 10

EGUBERRI ON!
Hauxe da aurtengo azken aldizkaria. 2019ko urtarrilaren 10ean hartuko duzue hurrengo **TTIPI-TTAPA**!

Urte berri on!



SINADURAK


MAIDER IANTZI GOIENETXE / **3**

AITOR AROTZENA ALBIZU / **3**

GABI GOIA IPARRAGIRRE / **4**

ZOZKETA / 64

IKUILU
OSTATUA
SAGARDOTEGIA

Uralde karrika, 6
BERA
T. 948 110 913

Sagardotegi menua

Bakailao-tortila
Bakailao frijitua
Txuletoia
Gasna, irasagarra eta intxaurrak
Patxaran txupitoa

Azaroaren 30etik Aste Santura bitarte (Ostiraletik igandera)

Erreserbak telefonoz:
948 110 913

pin! pan! pun!

Eguberritako haur parkea

Abenduak 26 - urtarrilak 4
Abenduak 31 eta urtarrilak 1 itxita

15:00 - 20:00
FICOBA. Irun

pin.ficoba.org

SALMENTA ONLINE!
Sarrera mugatuak

P
dohainik

FICOBA

NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Identitatea

Nor zara? Seguru gogoan duzula umetako panpin kuttuna. Ohatzerakoan, edo bidaiatu behar zenuenean, gogor heltzen zenuena. Lagun, munstro edo ilargiaren paperean ere jartzen zenuen, eta elkarrizketa sakonak izaten zenituen berarekin. Zerk egiten zaitu berezi? Erantzuten –eta egiten– ohituta ez gauden galdera da. Haur guztiek dute jaiotzen direnetik izen bat izateko eskubidea, baita nazionalitate bat ere. Hezkuntzarako, osasunerako eta babeserako atea irekitzen die horrek. Baina gaur egun 1.100 milioi lagun –horietatik 230 milioi umeak– bizi dira munduan aitortutako identitaterik gabe, batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikan, Asian eta Ozeano Barean. Zer izan nahi duzu? Euskaldun gazte talde batek –Leinn graduko ikasleak– Iam izeneko panpina sortu du, txikitatik identitateaz hausnartu eta kontzientzia hartzen laguntzeko. Gainera, irabazien zati bat Indiako umeak erregistratzeko izanen da, identitatearen bidez giza eskubideak eskura ditzaten. Proiektuaren informazio gehiago, *elmundodeiam.com*en.

«MUNDUAN 230 MILIOI UMEK EZ DUTE AITORTUTAKO IDENTITATERIK»

EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Gorazarre Omenaldi Itzala Artistari

Apezkiku izatea guttixko eta Aita Santu izan asmoz apezgai ikasketak egindakoa herriko alkate izan zen. Organoan musika zizelkatzeko eta harriei doinuak ateratzeko gai zen; Altzateko jaunari otoiz eginez eltzetzuekin izandako topaketak kontatzeko; aitzinaldean gorbataz dotore, gibelean ipurdi agerian artista. Politikaria ere gogoratuko dute Beran.

NABARMENTZEKOAK

ELLANDE ALFARO
BERTSOLARIA

Eskualdeko lau lagunek parte hartu dute Taldekako Xilaba Txapelketan eta horien artean, Mattinsalto taldean aritu den Ellande Alfaro saratarrak lortu zuen abenduaren 1ean jokatu zen finalerako txartela.

IKER ESPELOSIN
PILOTARI ZENA

Hamar urtez Txaruta elkarteko pilotaria izan zen iaz zendu zen sunbildarra eta abenduaren 22an omenaldia eskainiko diote sorterrian. Bertzeak bertze, afizionatuen arteko bi pilota partida antolatu dituzte.

ATZERA BEGIRA

2008-12-18 · TTIPI-TTAPA · 484 zk.

Giltzarri Ttiki Abesbatza sortzeaz

Giltzarri Abesbatzako Alex eta Oihana Abuin, Leire Arretxea eta Gema Sein elkarrizketatu zituen Ttipi-Ttapak duela hamar urte eta bederatzi urtetik aitzinerakoekin Giltzarri Ttiki Abesbatza sortzeko asmoez aritu ziren: «haurrengan kantatzeko ohitura edo zaletasuna sortu nahi dugu, eta horretaz gain, kontzertuen bidez eta hemendik ateraz, gure ingurua eta folklorea ezagutarazi nahi ditugu». Beraien ustez, «helduen abesbatzek maila ona izan dezaten gaztetatik hasi behar da». Gaineratu zutenez, «betidanik, Bortzirietan hutsune bat» ikusi zutelako hasi ziren asmo horri tiraka, «Giltzarri Abesbatzan jendea bilatzeko arazoak izaten ditugu eta ttikien korua sortuta Giltzarriren harrobia izan daiteke».

ttipi-ttapa

erran.eus Mendialdeko Albisteak

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi, Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdiko Akelarre elkartea

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra · mecna · Baztango euskara · Bortzirietako Euskara Mankomunitatea · Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA

KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

Zergatik kostatzen zaigu horrenbertze gure hutsegiteak onartzea?

Milaka aldiz aditu izanen duzue gizakiok ez garela perfektuak, maiz okertzen garela, behin eta berriz hanka sartzen dugula eta gure akatsetatik ikasten dugula... Hala ere, maiz, bakoitzari tokatzen zaigunean errazagoa izaten da begirada bertzeengana luzatzea gure barrura begiratzea baino.

Zer gertatzen zaigu gure bikoteak egunero egiten dugun zerbait zalantzan jartzen duenean? Edo gure nagusiak edo lankideak gure lana bertze modu batera egin daitekeela erraten digunean? Edo nola sentitzen gara gure alaba edo semearen tutoreak adierazten digunean umeak gelan duen jarrera ez dela egokia?

Honelako egoeretan, gehiengoa, nahasiak sentitzen gara, estres momentu bat bezala bizitzen dugu, batzuetan haserrea, lotsa edo erruduntasuna ere sentitzen dugu. Gure baitan uste genuen ongi jokatzen ari ginela, gure balioak eta ohiturak zuzenak zirela eta bat-batean ondokoak adierazten digu beharbada zerbaitetan oker gabiltzala.

«ENTZUTZEKO PREST BAGAUDE HOBETZEKO BIDEA HARTUA DUGU»

Eta nola jokatzen dugu entzundakoaren ondotik? Ez da erraza berehalakoan onartzea zerbaitetan arrazoia izanen duela gure parekoak. Gure jarrerei erne egoten bagara konturatuko gara hasiera batean uko egiten saiatzen garela: «ez da posible», «nik ez dut hori egiten», «nire umea ez da horrelakoa». Edo justifikazioak, argudioak eta aitzakiak bilatzen... «nik beti horrela egin izan dut», «ez dut astirik bertze modu batera egiteko»... Edo errua bertzeei botatzen: «zergatik ez didazu lehenago abisatu?», «zuk erran zenidan horrela egiteko», «lagun txarrak ditu», «irakasle horrek ez ditu ikasleak motibatzen»...

Baina, lehen kolpea jaso ondotik, emozioak baretzen direnean, buruari buelta batzuk eman ondotik, onartzeko bidean jartzen bagara norabide egokian goaz. Momentu batean onartu beharko genuke: ados, hemen zerbait aldatu beharra dago. Hutsegiteak identifikatuz eta hurrengorako hobetu beharrekoak planteatuz ikasi egiten dugu. Bertzela, gure burua engainatu bertzerik ez dugu eginen.

Gure izateko erari eta gauzak egiteko moduari itsu-itsuan lotzen bagara, betikoan jarraituko dugu eta hobetzeko eta ikasteko aukerak galduko ditugu. Entzuten jakin eta zenbait gauza onartzeko prest bagaude etengabe hobetzeko bidea hartua dugu.

Tyler Okimoto psikologo eta ikerlariak dioen bezala, «ingurukoentzat nabarmena baldin bada hanka-sartze bat egin duzula, ez onartzea ahulezia da eta ez indargunea».

ZUHAITZ BELOKI LEIZA

Informazio pertsonala sarean

Amazonen sartu zara, zure gustuko idazle horren azken liburua erosteko asmoz. Zure harridurarako, ez duzu bilaketarik egin behar izan liburua aurkitzeko, lehenbiziko orrian agertu baitzaizu, bista-bistan. Une batez, pentsatzen jarri zara kasualitate hutsa izan ote den, edo, egia ote den, esaten duten bezala, sarean uste baino kontrolatuago gaudela. Kezka berehala burutik kendu eta erosketarekin jarraitu duzu.

Interneten bitartez egiten dugu, gaur, ia dena. Gure informazio pertsonala plataforma horien atzean dauden erakundeei oparitzen diegu. Eta badago haiei bereziki gustatzen zaien informazio mota bat: zer atsegin dugun. Honez gero, konturatuko zinen edozein webgunetan aurki dezakegula 'atsegin dut' botoi ospetsua. Facebooken zein liburu eta zein telebista programa atsegin ditugun adierazten dugu harro. Gustatu zaizkigun bideo eta abestiak ere berehala markatzen ditugu Youtube eta Spotify-n.

«GURE INFORMAZIOA PLATAFORMEN ATZEAN DAUDENEI OPARITZEN DIEGU»

Informazio hori biltzen duenak eskura dauzka milioika lagunen gustu eta ohituren informazioarekin eraikitako gure profil birtualak.

Horren adibide ezagunena, beharbada, Facebook eta Cambridge Analytica enpresen eskandalua izan zen. Facebooketik lapurtutako informazioa erabili omen zuten, AEBko hauteskundeetan, Donald Trumpen aldeko kanpaina egiteko. Bakoitzari bere pentsamoldearen arabera egokitutako publizitatea egin zioten, antza. Bistakoa denez, arrakasta izan zuten. Kasu hartan jendeak argi utzi zuen ez zegoela datu pertsonalak baimenik gabe erabiltzen uzteko prest, iskanbila nabarmena eragin baitzuen albisteak.

Horregatik iruditu zait hain larria egun hauetako albistea: Espainiar Estatuko alderdi politikoek eskubidea izango dute, legez, sare sozialetako erabiltzaileen datu pertsonalak bildu eta beren kanpainetan erabiltzeko. Herritarren alde egin behar luketen horiek boto-emaile huts bezala ikusten gaituzten bitartean, sarean zabaltzen dugun informazio pertsonalaz kontziente izan, eta zabaldu nahi ez duguna guretzako gordetzen ikastea besterik ez zaigu gelditzen.

11 GALDERA LABUR

EDURNE ANZIZAR IBARRA DONEZTEBARRA

«Emakumea kirol esparruan sartzeko borrokan segiko dugu»

Aurkeztu zure burua.
40 urteko emakumea naiz, zoriontsu egiten duen familia osatu duena, gustuko lanean ari dena eta bizitzako erronkei aitzin egiten ikasi duena.

Zein dira zure zaletasunak?
Familiarekin eta maite ditudanekin egoteaz gain, zinema, bertsolaritza, kirola egitea... dut gustuko.

Emakume Korrikalarien Taldeko kide zara sorreratik...
Gaztetan gorroto nuen kirola. 32 urterekin hasi nintzen, bigarren alaba izan ondotik. Emakume talde bat iluntzetan gelditzen ginen, oinez ibiltzeko. Bertze emakume bat eta biok animatu eta korrika egiten hasi ginen. Hortik espazio bat sortzea pentsatu genuen...

Noiz sortu zen taldea eta zein helbururekin?
2012an, eskualdeko emakume korrikalariak elkartzeko. Izan ere, emakumea kirolaren esparrutik kanpo gelditu izan da... eta gaur egun borroka horrekin jarraitzen dugu.

Noiz eta non biltzen zarete?
Ortzegunetan 20:00etan Doneztebeko kiroldegian. Herriko karriketan edo inguruko herrietan egiten dugu lasterka.

Zenbat lagun elkartzen zarete?
15 eta 57 urte arteko 10 emakume inguru, batzuk urteetako esperientzia dute, bertzeak hasi berriak. Elkar ezagutzen ari bagara ere, giroa ederra da. Saioak ohitura, gaitasun eta adinera egokitzen ditugu eta edozeinentzat egokiak dira.

Talde irekia da?
Zalantzarik gabe. Baztango edo Bortzirietako edonor bertara daiteke. Ordubetez kirola giro ederrean praktikatu nahi duenak ateak zabalik ditu.

Inguruko lasterketetan parte hartzen duzue?
EKT bezala, urtean zehar bi lasterketetan parte hartzea dugu helburu: San Silbestrean eta Herri Krosan. Horrez gain hiru urtez Donostiako Lilatoian parte hartu dugu.

Zein da San Silbestre lasterketaren berezitasuna?
Besta giroa, herrikoia eta ez lehiakorra izatea.

Asteburuko plan ederrena?
Bikotearekin kirola egiteko, deskantsatzeko eta otordu eder bat egiteko bide ematen duen ateralditxo bat.

Zer eskatzen diozu 2019ari?
Emakumeok, nahi dugun moduan, sexu eraso, jazarketa eta matxismo eta mikromatxismoetatik aske, lasai bizitzea.

GOITI ETA BEHEITI

'Bertan bertakoa, Goizueta(n)' oihalezko poltsak banatuko ditu Goizuetako Udalak

Goizuetarrak herrian bertan kontsumitzeaz kontzientziatzeko eta eguneroko ohituretan tokiko garapenerako funtsezkoa den kontsumo lokala sustatzeko helburuarekin, Goizuetako Udalak oihalezko 350 poltsa banatuko ditu, etxe bakoitzeko bana, herritarrek erosketak egiterakoan erabil dezaten. Ekimena herriko komertzioekin elkarlanean garatu dute, horien etorkizuna mantendu eta bultzatzea kontsumitzaileen esku ere badagoela gogorarazi bidenabar.

GOITI ETA BEHEITI

3.100 kilo janari bilduak Arantzan eta Igantzin

Bertze urte batez, beharrean daudenei laguntzen aritzen den Paris 365 taldearentzako janari bilketa egin dute Arantzan eta Igantzin eta 3.100 kilo janari bildu dituzte! Hurrengo hitzordua Etxalarren egina dute: abenduaren 22an arratsaldez eta 23an goizez eliz atarian.

BOTA BERTSOA

IZASKUN ALEMAN ETXENIKE
IRURITAKO BERTSOLARIA

Olentzerori gutuna

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Arkatza hartu ta letra handiz
gutuntxo bat idaztera:
«nik hori nahi dut», «hura ere bai»,
gehientsuenek antzera.
Pentsatzen jarri, ta urte batzuk
eginez gero atzera,
lehen hitzez zena, mahai-jolasetan,
ondoan lagun... arreba...
Orain bakarrik pantaila aurrean,
hau da joslasteko era!

Hamar mugikor, hamabi 'fortnite'
eta 'play'ak zortzi edo,
teknologia dendek dituzte
etxeetan pila bezero.
Buruak hutsak, buruak hotzak,
eta gailuak hain bero.
Ikatza egiten azken aldian
lan gutxi duenez gero,
zakuak betez han Media Markt-en
dabil gure Olentzero.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus
948 63 54 58

PARIS 365 .ORG

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

EGIN EZAZU ZURE EKARPENA

EGIN LEGATU BAT

FACEBOOK KANPAINA...

www.paris365.org

lagun iezaguzu Paris 365 jantoki solidarioak duen defitari aitzin hartzen. **berdintasunez, bihotzez.**

Donazioen abantaila fiskalak ezagutzen al dituzu?

Erakunde sozialei donatutako lehenbiziko 150 euroen truk %80ko kenkari fiskala lor dezakezu errenta aitorpenean, eta hortik goiti %35ekoa.

Erakunde onuradunetan donazioak eginez gero sozietate-zergetan honako abantailak eskura ditzakezu: zerga-oinarria zehazterakoan donatutako kantitatea kopuru kengarria izanen da; eta zergen kuota likidoan %20ko kenkariak lortu ahalko dituzu.

Gizakia Herritar Fundazioa Paris365

Jarrai iezaguzu...

Bulego nagusia:
Kale Nagusia, 75 behea - IRUÑA
paris365@paris365.org
www.paris365.org

T. 948 222 425

www.facebook.com/paris365
twiter.com/paristres65
blogparis365.blogspot.com.es
www.youtube.com/user/365Paris

«Gaixotasun arraroak dituztenek ere tratatuak izateko eskubidea dute»

NEREA ZABALETA LASARTE BIOKIMIKARI LEITZARRA

Martxoan, tesiko emaitza nagusiak aurkeztuz, terapia genikoaren arloko saria lortu zuen Nerea Zabaleta biokimikariak. Urtarrilean doktoretza ondoko ikasketak hasiko ditu Bostonen

NEREA BAZTERRIKA LEITZA

Hasierako urratsak hanka puntetan eman zituen Nerea Zabaletak. Jakin bazekien biologia eta biomedikuntza «gustuko» zituela, baina gazte askok bezala «zalantzaz josita» aukeratu zuen biokimika ikastea. Laborategian eskua sartu zuenean bere bidean zegoela ohartu zen, eta horretan dihardu egun. Hainbat ikerketetan parte hartu du, eta besteak beste, hiperoxaluria gaixoak sendatzeko «tratamendu alternatiboak» garatu ditu. Aurrera segitzeko «irrikitan» dago. Izan ere, urtarrilean doktoretza ondoko ikasketak hasiko ditu Bostonen. «Oinarrizko» ikerketa batekin hasiko da, baina «ongi ateraz gero gaixotasun askoren tratamendua hobetzeko» baliagarri izanen da.

Zergatik aukeratu zenuen biokimika?

Argi neukan zientziari buruzko arloren batean egin nahi nuela lan, baina aukerak asko ziren: biologia, matematika, kimika... Ziur egon gabe, biokimika hautatu nuen.Ikasketak hasi berri nituen urte horretan jarria zuten karrera, beraz, ez nuen erreferentziarik. Biologian ardaztutako ikasketak izateak erakarri ninduen, biomedikuntza gustuko bainuen.

Ikasketetatik ikerketara...

Ikasketetako hirugarren urtean praktikak gaur egun lanean dihardudan laborategian egin nituen. Emaitza positiborik lortu ez banuen ere, hilabeteren buruan ikerketan jarraitu nahi nuela jakin nuen. Murgildu ahala, gero eta argiago izan nuen. Zirraragarria da, ikasketa jarraia da, egunerokoan erronka askori aurre egin behar izaten diogu. Arazoak konpontzen eta esperimentuak diseinatzen pasatzen dugu denbora gehien, baina emaitzak lortzean poztasun handia sentitzen da.

Doktoretza egin bitartean Parisen eta New Yorken izan zara...

Bai, hiru hilabetez egon nintzen leku bakoitzean. Parisen immunologiari buruzko ikerketak egin nituen eta New Yorken ama zelulekin egin nuen lan. Batean zein bestean nire ikerketarekin zerikusia zuten esperimentuak egin nituen, baina ikasketa esanguratsuena pertsonala izan zen. Ikertzaileontzat ezinbestekoa da kanpoko laborategiak barrutik ezagutzea. New Yorkeko laborategia egoera tamalgarrian zegoen, ez zegoen txukuntasunik eta inork ez zidan laguntzen. Materiala bildu eta nire kabuz lan egin behar izan nuen. Bakarrik lan egiteko gai nintzela ikasi nuen. Parisen, berriz, jende asko zegoen laborategian eta denak laguntzeko prest izan nituen. Asko ikasi nuen. Bata zein bestea esperientzia aberasgarriak izan ziren.

Martxoan terapia genikoaren arloko ikertzaile gaztearen saria eman zizuten...

Tesiko emaitza garrantzitsuenak aurkeztu nituen eta saria eman zidatela ikusita, egindako ikerketaz harro sentitu nintzen. Epaimahaia terapia genikoan diharduten estatuko ikertzaileek osatu zuten. Puntako ikertzaile horiek nire proiektua saritzea ederra izan zen. Ez nuen inondik espero, Iruñerantz nindoala izan nuen horren berri, eta beraz, ezin izan nuen momentuan jaso. Sariketan bertan nire izena entzuteak asko poztuko ninduen...

Zein izan ziren tesiaren helburuak?

Helburu nagusia hiperoxaluria sendatzeko tratamendu alternatiboak garatzea izan zen. Horretarako, terapia genikoa proposatu nuen, hau da, DNA terapia gisa erabiltzea. Bi estrategia garatu nituen:



Nerea Zabaleta laborategian. CARLA USAI

Hiperoxaluria

Gaixotasun «genetikoa arraro bat» da, aurrekoetatik heredatzen dena: «gurasoak eramaile asintomatikoak izaten dira eta milioiko 1-3 gaixo izaten dira». «Gibeleko metabolismo arazoak» eragiten ditu. Gibelean AGT izeneko proteina falta izatearen ondorioz, «oxalato gehiegi» sortzen da eta hori odolera pasatzen da: «gernuaren bidez kanporatzen da gorputzetik». Oxalato hori «arriskutsua» da, «kontzentrazio altuan dagoenean giltzurrunetan kristala eta harriak sortzen dituelako».

Eragiten dituen kalteak

Hiperoxaluria duten gaixoek «ttikitatik giltzurrunetako kolikoak» sufritzen dituzte. Eraso jarraituek «giltzurruna mintzen» dute pixkan-pixkan «funtzioa galtzen» duten arte: «azkenean giltzurrunak transplantatu behar izaten zaizkie». Gibela, «arazoaren eragilea» dena, ere transplantatu behar izaten dute. Bi organoak aurkitzea eta trasplantatzea «ez da erraza» eta gainera, pazienteek «bizi guztirako tratamentu bat jarraitu behar dute».



Biomedikuntza alorreko hainbat proiektutan esku hartu du Nerea Zabaleta leitzarrak. CARLA USAI

batetik, AGT gene funtzionala gibelera eramatea, gaixotasunaren iturria zuzenduz; eta bestetik, oxaltoa sortzen duten gene batzuk ezabatzea, sintomak murrizteko. DNA gibelera eramateko garraiatzaile bat behar da. Kasu honetan genetikoki aldatutako birusak erabili nituen. Birusei gene biral edo patologikoak kendu eta interesatzen zitzaizkidanak gehituta DNA terapeutikoa txertatu nuen, kasu horretan AGT gene osasuntsua. Birusa kanpotik ez zegoen eraldatua; eta beraz, gibela infektatzeko gai zen, eta horrek tratamendua inokulatzen zuen. DNA hori gibelean denbora luzez mantentzen da, eta beraz, luzerako tratamendua da.

Zer metodologia erabili duzu?

Batetik, medikamentua sortu behar izan nuen, kasu honetan birusa. Birusaren DNA aldatu eta manipulatuz, birusa sintetizatu eta kalitatea zehazteko probak egin nituen. Gero, terapiaren eraginkortasuna probatu nuen; oxaltoa murrizteko zuen gaitasuna zenbatekoa zen ikusteko. Eta azkenik, tratamendua segurua dela eta ez duela albo kalterik eragiten ikusi behar izan nuen.

Helburua asebetetzea lortu zenuen?

Esperimentu asko eginda eta hiru urteren ondoren tratamendua hiperoxaluriaren arazo metabolikoari aurre egiteko gai dela egiaztatu da. Oxalatoa murrizten eta giltzurrunetako kaltea saihesten du. Helburu nagusia lortu dugula esan dezakegu: hiperoxaluria tratatzeko alternatiba bat garatu dugu eta terapia hori gaixotasunaren arazo nagusiak gainditzeko gai da.

Ez da egin duzun ikerketa bakarra...

Beste proiektu batzuetan ere parte hartu dut. New Yorken ama zelulekin lan egin nuen. Hiperoxaluria gaixotasuna duen baten odoleko zelulak bilduta ama zelulak lortzeko gai gara. Ondoren, teknika jakinak erabiliz, zelula horiek gibeleko zelula bilaka daitezke. Modu horretan gaixo dagoen pertsonatik gibelerako zelulak lortzen ahal dira.

Kongresuak eskaini dituzu...

Hiru urtez jarraian Europako terapia genikoaren kongresuan izan naiz: Florentzian, Berlinen eta Lausanan; hiru urtez Ameriketako kongresuan (bi urtetan Washingtonen eta aurten Chicagon); eta bitan estatu mailakoetan (Donostian eta Menorcan). Horiez gain, 2017an Tenerifera, hiperoxaluriari buruzko sinposio batera, joateko aukera izan nuen. Kongresuetan ikasi dut gehien, azken orduko datuak aurkezten dira eta kontaktu eta kolaborazio asko egiteko aukera izan dut.

Orain zertan ari zara?

Doktoretza egin nuen laborategian (CIMAn) segitzen dut, otsailean bukatu nuen tesia eta gauzei amaiera ematen nabil orain. Besteak beste, tesian egindako lana aldizkari zientifiko batean argitaratzea lortu dugu, eta orain lasaiago nabil. Proiektu arriskutsuagoak probatzen ari naiz. Segur aski ez da ezer aterako baina orain da saiatzeko momentua, zerbait interesgarria iruditz gero probatzekoa.

«GAIXOTASUN ASKO DIRU PUBLIKOA ERABILIZ IKERTU BEHAR LIRATEKE»

«IKERKETA ONGI ATERAZ GERO TRATAMENDUAK HOBETUKO DITUGU»

Etorkizunera begira baduzu beste ikerketarik buruan?

Urtarrilean Bostonera joanen naiz, doktoretza ondoko ikasketak egitera. Zehazki, geneterapia laborategi batean eginen dut lan, gaian aditua den zuzendari batekin. Nire asmoa bektore biralen biologia ikastea da: nola iristen diren organora, zein mekanismo bidez sartzen diren zeluletan eta nola mantententzen den DNA terapeutiko hori denbora luzez bertan. Jakinduria lortu nahi dut, bektoreak hobetu eta terapia eraginkorragoa lortzeko. Oinarrizko ikerketa batekin hasiko naiz, baina ongi ateraz gero, gaixotasun askoren tratamendua hobetzea lortuko dugu.

Nola ikusten duzu medikuntza arloko ikerketa?

Ikertzaile asko gaude, aurrerapen handiak egin dira eta gaixo asko sendatu dira. Hala eta guztiz ere, ikerketa asko ditugu aurretik, milaka gaixotasun eta milioika gaixo sendatzeko. Ikertzaile guztiok indarrak bateratu beharko genituzkeela uste dut, hori lortzeko borroka egin behar dugu. Inoiz ez da nahikoa.

Behar adina diru-laguntza ematen dute?

Diru asko erabiltzen da ikertzeko, dirudiena baino gehiago, baina ez da nahikoa. Diru gehiago izanez gero azkarrago joanen litzateke dena. Gaixotasun arraroak ikertzeko diru asko lortzen da erakunde eta fundazioetatik eta horri esker proiektuei hasiera emateko aukera dugu. Datuak onak izanez gero errazagoa da dirulaguntza handiagoak ematen dituzten proiektu publikoak lortzea. Gaixotasun askoren tratamendua ikertzeko diru publikoa (estatu edo Europa mailan) erabili beharko litzateke. Industria farmazeutikoan ez dira ikertzen, ondoren ez dagoelako etekin ekonomikorik. Ikerketa hori diru publikoarekin egin behar da gutxiengoek ere badute tratamendua jasotzeko eskubidea...

Osasuna eta ongizatea helburu

2017az geroztik 132 lagun artatu dituzte Bortzirietako Arreta Psikologikorako Zerbitzuan. Artatutakoen artean, arazo nagusiak «antsietatea, depresioa eta familia bizikidetasun arazoak» izan dira

N. BAZTERRIKA

Zauri guztiak ez direlako agerikoak eta sendabide guztiak ez direlako botikak, 2017an, Bortzirietako Elkarrizan Laguntza Emaile Taldeak Arreta Psikologikorako Zerbitzua bultzatu zuen Bortzirietan. Bertako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta La Caixa Gizarte Ekintzaren laguntzaz «zerbitzua martxan jarri eta indartzea» lortu dute.

Zerbitzua «eskualdeko haurren, nerabeen, helduen, familien zein bikoteen osasuna eta ongizatea» bermatzeko helburuz sortu zuten. Sorreratik, Amaia Pando Aramendi psikologoak artatzen ditu herritarrak, «Mankomunitateak Etxalarren eta Lesakan dituen egoitzetan eta Berako udaletxean».

Hasieratik «elkarlanean»

Hitzetik egitera, lehenbiziko urratsak «elkarlanean» eman zituzten. Hasteko, antolamendua «goitik beheiti arautu» behar izan zuten: «ordutegia, bulegoa, arreta emateko baliabideak, protokoloak, txostenak...». Horrekin batera, hainbat entitaterekin eta «batez ere osasun etxearekin, eskolekin eta Gizarte Zerbitzuekin saretzeko» bitartekoak garatu zituzten: «bai osasun etxeetan, bai ikastetxeetan baita Gizarte Zerbitzuetan ere arazo psikologiko aunitz ikusten dituztenez, esku zabalik hartu gintuzten». Gaur egun, «beharrezkoak deritzoten kasuetan aukeraren berri eman eta kasua bideratzea aholkatzen dute. Erabiltzaileak nahi badu soilik abiatzen da hartuemana». Aitzitik, zerbitzua herritar guztiei irekia da eta nahi duenak bitartekaritzarik gabe jo dezake: «ahal dugun guztian lagunduko diegu».

Iaz baino erabiltzaile gehiago

Egindako lanari esker, aitzinera egitea lortu zuten. Lehendabiziko urtean «61 lagun» artatu zituzten. «Otsailean hasi eta dena antolatzeko hilabete bat inguru» behar izan zutela kontuan hartuz, «positiboki» baloratu zuten. Haientzat datu hori baino erranguratsuagoa da erabiltzaile kopuruaren goranzko joera: «lehendabiziko seihilekoan 41 lagun artatu» dituzte «joan den urtean baino %17 gehiago».

«EDOZEIN IZAN DAITEKE ZERBITZUAREN ERABILTZAILE»

Aurreiritziak

Zerbitzua ezagutzeaz harairdi, laguntza eske jotzerako orduan, gizarteak psikologiari buruz dituen aurreiritziek eragin handia dutela nabarmendu dute: «jendeak ez du onartzen fisikoki gaixotasun bat izan dezakegun bezala, psikologikoki ere izan dezakegula».

Gizartean «errotuta dagoen perfekzioaren ideiak» ere gauzak zailtzen dituela uste dute: «guraso, seme-alaba edota langile perfektuak, indartsuak, izateko hezten gaituzte». Hortaz, «arazoren bat sortzen denean, bakarrik gainditu behar dugula pentsatzen dugu». Bakarrik aitzin egiteko gai ez izateak «ttiki sentiaraztea, ez ailegatzea...» eragin dezake.

Antsietate kasuek izan duten «eztanda», hein batean «presio horren ondorio» izan daitekeela adierazi dute: «bertze kultura eta bizimodu bat duten herrietan zifrak ez dira berak». Antsietatearekin batera, «depresioa eta familia bizikidetasun arazoak» dira tratatutako kasuak. Laguntza eske jo dutenen %46a «36-46 urte artekoak» izan dira: «batetik, adin tarte handia hartzen duelako, eta bertzetik, tarte horretan ardurak areagotzen direlako: lana, seme-alabak...». Guttien «adinekoak» izan dira: «psikologoa arrotza da haientzat. Halere, pixkanaka ikuspegi hori aldatzen ari da».

«AURTEN ZERBITZUA SENDOTZEA LORTU DUGU»

Pazienteek ederki islatzen dute gizarteko iritziek duten eragina: «'Ez dut inork jakiterik nahi', 'Lantokian zer erranen dute?', 'Inor ez dela enteratuko seguru jakinez gero, lasai etortzen naiz' tankerakoak erraten dituzte».

Pausoa eman

Horri guztiari aitzin egin eta pausoa emateko aunitzek «denbora» behar izaten dute. Kanpotik ikusita, psikologora jotzeko adierazle argienetako bat «eguneroko martxa gogorra eta ezohikoa den momentua» izan daiteke. Dena dela, «prest egotea» da garrantzitsuena.

Prestutasun horretan eragiteko, «gakoetariko bat» psikologoarekiko dauden aurreiritziak izaki, aitzinera begira, «arreta psikologikoa desestigmatizatzea eta normalizatzea» lortu nahi dute.

PSIKOLOGOA

AMAIA PANDO ARAMENDI

«Terapiak denontzat dira onuragarri»

«Bederatzi urte» daramatza Pandok psikologo lanetan, «azken biak Bortzirietako psikologia zerbitzuan». Bi urteotan 132 lagun artatu ditu: «gehienak antsietate, depresio edo familia-bizikidetza arazoei aitzin egiteko, baina baita dolua, estresa, beldurrak, lo arazoak, fobiak, adikzioak... gainditzeko ere».

Haurrek aldaketarako gaitasun handia

Tratamendurako beharrezko denbora, kasu batetik bertzera aldakorra da: «batzuek zer duten jakitea aski izan duten heinean, bertzeek gogor lan egin behar dute». Halere, terapiaren onurak «haurrengan bereziki» nabarmenak direla ikusi du: «harremana eraikita aise egiten da lan, malguagoak, aldakorragoak dira». Kasu guztietan, «faktore aunitzek» baldintzatzen dute: «bai izaerak, inguruneak, arazoaren historiak, larritasunak... baita pertsonak tratamenduan duen inplikazioak ere». Normalean, pausoa eman dutenak «prest» joaten direla nabarmendu du: «hasieratik, galdera gehiegi egin gabe, askatzen dute korapiloa». Arazoa ezagutzeaz gain, «horren iturria zein den eta zer pentsamendu dituen» aztertzen saiatzen da Pando. Hala, «pentsamendu irrazionalen pisua arintzeko erremintak» sortzen ditu. Izan ere, prozesua «pentsamendu irrazionalek pisurik ez dutenean» bukatzen hasten da.

ANTSIETATEA ETA AGORAFOBIA

EMAKUMEZKOA 31 URTE

«Zoratzen ari nintzela uste nuen»

«Betitik» izan da «urduria, beldurtia eta eginbeharretan gehiegi pentsatzen duena», baina arazoa «nondik» datorkion ez daki. «Jende aunitz biltzen den tokiak, igogailuak, hegazkinak, autobusak...» ez ditu gustuko izan, eta horiek «saihesten» saiatzen zen. 23-24 urte zituela, horiek erabiltzeko «beharra» izan zuenean, «urduritasuna baino gehiago» sentitzen zuen: «bihotz erritmoa azkartu eta zorabio sentsazioa izaten hasi nintzen».

Zulotik ateratzeko «erremintak eta teknikak»

Egoera horiek «ezustean» gertatzen hasi zitzaizkiola eta «izukolpeak gero eta maizago» izaten zituela ikusirik, «etxetik ateratzeari utzi nion, nire bizitza soziala desagertuz joan zen eta lana uztea ere pentsatu nuen». Arazoari «bakarrik aitzin hartzea ezinezkoa zela ikusita» eman zuen pausoa. Psikologoak «dudan arazoa gorabehera emozional bat dela ohartzen» lagundu dio: «tratamenduarekin hasi aitzinetik zoratzen ari nintzela pentsatzen nuen, beldur nintzen. Orain pentsamendu horiek kudeatzeko gai naiz». Prozesu horretan «lasaitzeko eta egoera horiei aitzin egiteko» eman dizkion «erremintak eta teknikak» lagungarri izan zaizkio: «pertsona urduria izaten segitzen dut eta baditut momentu txarrak baina lehen ez bezala bizitza normala egin dezaket».

DEPRESIOA

GIZONEZKOA 59 URTE

«Semeak erranda jo nuen psikologora»

«Emaztea galdu eta 14 eta 10 urteko haurrekin alargundu» zenean, «buelta ematea» lortu bazuen ere, «zaharrena etxetik irten zenean eta alaba unibertsitatera joan zenean» dena «gainean» sentitu zuen: «gogorik gabe, lur jota jaikitzen nintzen». Bizitzeak «ez zuela merezi» sentitzen hasia zen. Lanean «ezin kontzentratu» zebilenez, «baja hartu» behar izan zuen. Horrek «egoera larritzea» eragin zion: «nire buruaz beste egitea ere pentsatu nuen».

Bizitzeko «gogoa berpizten»

Jakin bazekien, seme-alaben sustengua bazuela, baina «urruti» sentitzen zituen. «Semearekin solastatuta eta medikuak hala aholkatuta» erabaki zuen psikologora joatea: «indarrik gabe nintzen, eskerrak etxe atarian nuen». Oraindik tratamenduan dago, baina «bizitza bertze modu batera ikusten» hasia da: «emaztearekin izandako bizipenak, seme-alabak, anai-arrebak, lagunak... hor daude». Etxe-zulotik ateratzeko ahaleginak ere egiten ditu orain: «mendi talde batean izena eman dut eta lagunekin gelditzen naiz». Etorkizunari ere begiratzen dio: «beharbada atatxi izanen naiz», dio irriz. Psikologoari esker, «bizitza bakarrik bizitzen den bidaia dela eta nire buruaren arduraduna ni neu naizela ikasi dut».

BIKOTE ARAZOAK

BIKOTEA 42 ETA 39 URTE

«Elkar ulertzen lagundu digu»

Elkarrekin «15 urte» daramatzate. Baina «azken bi urteak nahiko gorabeheratsuak» izan dituzte: «pixkanaka arazoak larriagotzen joan ziren». Egunak «eztabaidan» eta «batak bertzeari eginiko akatsak leporatzen» pasatzen zituzten. Ohartu gabe, «elkarrekin denbora guttiago pasatzen» hasi ziren: «egin beharreko lanak egiteko bakarrik elkartzen ginen eta banatzea ere pentsatu izan genuen».

Banakako terapiatik elkarlanera

Azken aukera «psikologora joatea» izan zen. Hasieran banaka joaten ziren: «bakoitzaren egoera eta nahiak aztertzeko». Batek «familia izateko itxaropena zapuztearen mina» zuen bitartean, bertzeak, «autoestimu arazoak» zeuzkan. «Indartsuago» sentitu ahala, berriz, «elkarrekin» lan egiteari ekin zieten. Terapiak «elkar ulertzen, batak bertzea aurkitzen, elkarrekin gehiago egoten, bertze pertsonarengan ikusten ditugun alde onak azaleratzen, ekintzak planifikatzen... lagundu digu» diote: «laneko ardurak eta estresak guraso izateko nahia erabat deuseztatua zigula ohartu gara». Pixkanaka, «garrantzia duten alderdiei begiratzen» hasiak dira baina oraindik badute zertan jardun: «komunikazioa hobetzeko eta elkar ulertzeko estrategiak lantzen ari gara».

Mintzodromoa izan da Euskaraldia borobil bukatzeko

1.192 lagunek parte hartu dute Bortzirietan, horietatik 1.009 Ahobizi eta 183 Belarriprest

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Ahobizi eta Belarriprestek Euskaraldiko hamaika egunetan bizitako esperientzia partekatzeko aukera izan zuten Euskararen Egunean. Mintzodromoa Ricardo Baroja ikastetxean egin zuten, Jon Abril eta Maider Arrieta gidari zutela eta Joseba Olagarai aurkezle eta musikak (espreski Euskaraldiarako prestatutako abestia kantatu zuten Ekhiñe Zapiain, Eneriz Zapirain eta Lizar Elexpuruk) zein Estitxu Arozenak gidatutako Bortzirietako bertso eskolako gazteen bertsoek girotu zuten. Ondotik, parte hartzaile guztiek hamaiketakoaz gozatzeko aukera izan zuten.

1.192 parte-hartzaile Bortzirietan

Bortzirietan 1.192 lagunek parte hartu dute hamaika egunez Euskaraldian, 1.009 Ahobizi rolean eta 183 Belarriprest: Beran 518 izan dira (409 eta 109), Lesakan 355 (311 eta 44), Arantzan 153 (144 eta 9), Etxalarren 88 (82 eta 6) eta Igantzin 78 (63 eta 15).

Jendea mintzodromoan eta bertso eskolakoak kantari. UTZITAKO ARGAZKIAK

Frutas y Verduras
ERRANDONEA, S.L.
FRUTAK ERA BARAZKIAK
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

LABE ZAR
948 631 076 • BERA
Astelehenetik ortziralera: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

PAIS DE NAVARRA
MARTIKO
EGUBERRIETAKO ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera: 9:00–18:00
Abenduak 15 eta 22, larunbata: 9:00–14:00
Itxaroten zaituztegu.
Martiko. Zalain s/g. 31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625 016 Fax: 948 625 036
www.martiko.com · martiko@martiko.com

AINHOA
ESTETIKA
• Aurpegi eta gorputz tratamenduak
· Liftinga
· Antizelulitikoa
STORZ MEDICAL
• Manikura eta pedikura. Esmaltatu permanentea
• Laser depilazioa
• Makilajea
• Betileetako permanentea
T. 661 432 630
Eztegara 20 · BERA

Luahi
ileapaindegia • solarium
T. 948 625 742

Olentzero eta Mari Domingirekin kalejira eginen dute abenduaren 24an.

Eguberrietako ospakizunak prestatzen ari dira

Abenduaren 24an kalejira herrikoia antolatu dute arratsaldean eta ilunabarrean helduak ibiliko dira kantari

TTIPI-TTAPA

Eguberrietako ospakizunen prestaketa lanetan ari dira herritarrak. Abenduaren 24an eginen den kalejira herrikoirako lehen entsaioa abenduaren 12an, asteazkenean egitekoa zuten parte hartuko duten musikariek. Hilaren 17an, berriz, astelehenean 18:00etan Kultur Etxean, abestiak entsaiatuko dituzte haurrek eta musika eskolako trikitilariek.

Abenduaren 24an eginen da kalejira herrikoia, Olentzero eta Mari Domingirekin. Astelehenean 16:30ean Merkatu Plazan hasiko da, eta Herriko Etxeko Plazan bukatuko da, bidean Altzateko plaza, Altzate karrika, Eztegara pasealekua, Kanttonberri karrika, San Jose zahar-etxea, Eztegara pasealekua, Iturlandeta karrika, Foruen plaza eta Gernikako Arbolaren zeharbidea pasatuz. Eguraldi txarra eginen balu, Eztegara pilotalekuan eginen litzateke jaialdia 17:15ean. Ilunabarrean, helduak kalejiran ibiliko dira kantari, Gure Txokoak antolatuta.

Abenduaren 31n, Urtezahar egunean ere, ohiko ospakizunak izanen dira. 15:00etan Glin-Glan kantari aterako dira ttikienak karrikaz karrika eta 18:00etan Diostesalbe kantatuko dute abesbatzak eta nahi duten guztiek herriko karriketan barna. Eguberrietako ospakizunak, beti bezala, ilbeltzaren 5eko Errege Kabalgaterekin bukatuko dituzte.

Abesbatza eta txistulariak kontzertuan

Abenduaren 22an kontzertua eskainiko dute Berako Abesbatzak eta herriko txistulariek. Hitzordua 19:30ean izanen da Kultur Etxean.

Musika Eskolako emanaldiak eta kontzertua

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako ikasleak hiruhilabeteko emanaldiekin hasiak dira. Hilaren 11n, asteartean, biolin entzunaldia eskaintzekoa zuten Musikan; abenduaren 14an, ortziralean 18:00etan trikitixa eta akordeoi entzunaldia izanen da; abenduaren 18an, asteartean, piano kontzertua eskainiko dute ordu berean eta hilaren 19an, asteazkenean, 18:00etan, Eguberrietako kontzertua San Esteban elizan. Kultur Etxea ttiki gelditzen zela eta iaz hasi ziren elizan eskaintzen kontzertua.

Bertako ekoizleen merkatua eginen dute larunbatean

Hilabeteroko ohiturari eutsiz, abenduaren 15ean, bertako ekoizleen merkatua eginen dute, larunbatean 10:00etatik 13:30era Ricardo Baroja eskolako arkupeetan. Kalitatezko produktuak, bertakoak eta osasuntsuak plazaratuko dituzte oraingoan ere.

Josu Goia zena omenduko dute igande honetan

Sortuk antolatutako Kultur Etxeko ekitaldiaren ondotik herri-bazkaria eginen dute Zubiondon

Josu Goia, musika talde bat zuentzen San Esteban elizan. ARTXIBOKOA

TTIPI-TTAPA

Josu Goiaren ibilbide politikoa omentzeko ekitaldia antolatu du Sortuk igande honetan, abenduak 16. 12:00etan Kultur Etxean egin dute hitzordua eta ondotik, poteo herrikoia eginen dute eta 14:00etan bazkaria Zubiondo jatetxean.

Kultur Etxeko ekitaldian, bideoak, Aurreskua, Tasio Erkiziaren solasaldia, Pettiren abestiak, txalaparta, txistulariak eta Josu Goiak hain gogoko zituen *Internazionala* eta *Eusko Gudariak* kantak abestuko dituzte, baita berak konposatutako *Altzateko Jaunari Otoitz* pieza ere.

Bizitza emankorra

Josu Goia Etxeberria 1947an jaio zen Beran eta azaroaren 3an hil zen, 71 urte zituela. Ezker abertzaleko kide historikoa izan zen eta Herri Batasunaren lehenengo Mahai Nazionalean parte hartu zuen. Nafarroako Parlamentuaren legebiltzarkidea ere izan zen 1979an.

Berako alkate ere izan zen 1999tik 2003. urtera Euskal Herritarrok taldearekin eta hamasei urtez zinegotzi. 2003an, Beraginez hautagaitzako zerrendaburu gisa aurkeztu zen, baina Auzitegi Gorenak legez kanpo utzi zuen taldea.

Egin-eko Administrazio Kontseiluan parte hartu zuen, eta Gara egunkaria argitaratzen duen Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarteko kontseilaria 2018ra arte.

Musikaria eta abeslaria ere izan zen, baita idazlea eta eskultorea ere. Liburuak eta diskak ere argitaratu zituen. Berako elizako organo-jolea ez ezik, Musika Bandako zuzendari ere izan zen urtetan. Bere azken ekarpena, aurtengo Berako bestetan Musika Bandak estreinatutako *Altzateko Jaunari Otoitz* musika-piezaren partitura izan zen.

BERA

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA

GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA | T. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ETORRI ETA SOLASTUKO GARA

Eguberrietako oparirik ederrena

ORBEA · CENDA · MERIDA · SCOTT · BH · PINARELLO · GIANT · Liv

175 azienda plazaratu zituzten feria egunean

Gillenbordako eta Berako Begibeltzenekobordakoak eskuratu zituzten sari nagusiak behi aziendetan

AITOR AROTZENA

175 azienda aurkeztu ziren azaroaren 22ko feria egunean, iaz baino 50 gehiago. Horietatik 96 zaltabereak ziren, 77 behi eta 2 ahari baino ez.

Suitzar arrazako behietan lehen eta hirugarren sariak, 190 eta 100 eurokoak, Gillenbordako Francisco Javier Altzugarairentzat izan ziren eta bigarrena, 160 euro, Berako Begibeltzenekobordako Joxean Igoarentzat. Haragitako behietan, lehen eta hirugarren sariak Begibeltzenekobordara joan ziren eta bigarrena Maribel Indarentzat izan zen.

Zaldi aziendetan, 125 eta 95 euroko lehen bi sariak Marisol Otxotekorentzat izan ziren. Hirugarren saria (50 euro), Maribel Indarentzat izan zen. Marisol Otxotekok 100 euroko saria jaso zuen pottoka onenarengatik, Jon Iturbide lesakarrak 80 euro monturako behor onena aurkezteagatik eta Mikel Apeztegiak 70 euro *pony* onena plazaratzeagatik.

Aharietan, bi ahari bertzerik ez ziren aurkeztu sariak (50 eta 30 euro) Berako Miguel Angel Etxegaraik aurkeztutakoentzat izan ziren.

Suitzar arrazako behirik onena.

Ajoarriero lehiaketa

Bezperan, Beti Gaztek antolatutako ajoarriero lehiaketa egin zen. Hamalau bikote aurkeztu ziren, iaz baino sei gehiago. Horien artean, Elutxa txarangaren izenean aritu ziren Mikel eta Aitziber Maia Madariaga anai-arrebak nagusitu ziren. Bigarren saria ere Elutxa txarangako Mikel Santxez eta Mikel Telletxearentzat izan zen eta hirugarrena, Bortzirietako Gorriak taldeko Jose Mari Flores eta *Pitxurri* Biurrarenarentzat. Epaimahaia, Maria Jesus Errazkin, Felisa Taberna, Igor Romano eta Agustin Arriolak osatu zuten.

UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Parlamentua Lesakan

Nafarroako Parlamentuaren Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bilkura Iruñean egin ordez Lesakan egin zuten azaroaren 26an, *Parlamentu ibiltaria* programaren baitan. Bisita eskertzearekin bateram N-121-A errepidean inbertsio gehiago egitea eskatu zien alkateak parlamentariei.

UTZITAKO ARGAZKIA

Hor dun koxka taldearen kantua diskan

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak maketa lehiaketa antolatu du aurten ere. Aurkeztu diren hamar kantu onenekin *Haziak II* diska grabatu dute, tartean herriko Hor dun koxka taldearen *Kateak hautsita* kalejira. Durangoko Azokan aurkeztu dute eta bertan izan ziren taldekideak ere.

Eguberrien atarian janari bilketa eginen dute

Abenduaren 22an eta 23an eliz atarian eta abenduaren 16tik 23ra plazako janari-dendan bilduko dira

IRUNE ELIZAGOIEN

Eguberriei begira daude herritarrak. Urtero bezala, egun horien bueltan, parrokiako juntak antolatuta, beharrean daudenei laguntzeko janari bilketa eginen dute. Abenduaren 16tik 23ra plazako janari dendan utzita edo abenduaren 22an (18:00etatik 19:00etara) eta abenduaren 23an (11:00etatik 12:00etara) eliz atarian bilduko dute.

Ospakizunak abenduaren 24an hasiko dira. 16:30ean plazan elkartu eta herrian barna ibiliko dira. Herriko txistulari eta trikitilariek girotuko dute herria. Olentzero eta Mari Domingiren zain egon bidenabar, txokolate beroa eskainiko dute.

Abenduaren 31n, ohiturari eutsiz, herriko haur eta gaztetxoak eskean ibiliko dira. Larraburua elkarteak antolatuta, urtea Bingoarekin hasiko dute, Herriko Ostatuan, 18:00etan. Errege Eguneko txokolate beroarekin akabatuko dira ospakizunak. Urtarrilaren 6an ez du hutsik eginen urteroko txokolate beroak. 17:00etan dute hitzordua.

Udalak antolatuta bilera abenduaren 13an

2019ko aurrekontuei buruz solastatzeko bilera deia egin du Udalak. Abenduaren 13an, ortzegunean, zehaztu dute hitzordua, 19:00etan eta Herriko Etxeko Batzar Aretoan bilduko dira. Etxalartar guztientzat irekia izanen da eta parte hartzeko deia luzatu dute.

'Karmen Etxalarkoa' pastoraleko materiala salgai

Oraindik ere *Karmen Etxalarkoa* pastoraleko grabaketa eta liburuxka batzuk eskuragarri daude herriko Kultur Etxean. Grabaketak 18 eurotan eta liburuxkak bortz eurotan daude salgai. Biak erosten dituztenek 20 euro ordaindu beharko dituzte.

LANDAGAIN ESKOLA

Txistu emanaldi pedagogikoa

Azaroaren 16an Landagain eskolako ikasle eta irakasleek urtero ospatzen duten txistu emanaldi pedagogikoaz gozatzeko aukera izan zuten Kultur Etxean. Abesteko eta dantza egiteko aukera ere izan zuten eta bertaratu ziren haur, irakasle eta herritarrek primeran pasa zuten.

IBON ERRAZU

Carlos Nuñezen kontzertu arrakastatsua

Bigarren urtez Nuñez eta taldeak kontzertua eskaini zuten elizan. Sarrera guztiak agortu ziren eta eliza bete jende bertaratu zen. Musikari eta ikusleen artean giro berezia suertatu zen. Bertzeak bertze, Itsaso Elizagoien eta herriko trikitilari eta txistulariek parte hartu zuten.

Berriz ere egoitzari buruz ariko dira Biltokiko bazkideak

Abenduaren 23an izanen dute urteko bigarren ezohiko bilera gai honetaz aritzeko (17:00)

TTIPI-TTAPA

Egoitza dela medio urte mugitua suertatzen ari zaio Biltoki elkarteari. Beraien etorkizuneko txokoa zein izanen den erabiki nahian dabiltza eta poliki-poliki pausuak ematen ari dira. Ezohiko bilera guti egin dira elkartea sortuz geroztik, baina aurten bigarrena dute gai bera jorratzeko, joan den apirilean egindakoaren ondotik.

Abenduren 23an izanen da, arratsaldeko 5etan, eta egoitzaren gaiari eskua sartu baino lehen barne araudiaz solasteko asmoa dute.

OSKAR TXOPERENA

Giltzarri abesbatzaren kontzertua

Eguberrietako kontzertua eskainiko du Giltzarri Abesbatzak, abenduaren 15ean, larunbat ilunabarreko mezaren ondotik, Dozena bat kanta izanen dituzte egitarauan. Lehen aldiz kantatuko dute herrian duela urte bete bertan kantatzen hasi ziren igantziarrentzat. Afaria izanen dute ondotik, Biltokin.

Udazkeneko mus eta partxis txapelketetako sariak banatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 1eko bazkariaren ondotik banatu zituzten aurtengo udazkeneko mus eta partxis txapelketen sariak. Musean Juxta Sein eta Plaxen izan ziren garaileak, Josetxo Arburua eta Periko Martiarena izan zituzten ondotik eta Jabier Telletxea eta Amador Txoperena suertatu ziren hirugarren. Partxisean bigarren txapela irabazi zuen Juxtak, Juan anaiarekin oraingoan. Kontxita Vicente eta Pili Iturbide izan ziren azpitxapeldunak eta Manuela Sein eta Ana Isabel Etxeberria hirugarrenak.

Aizpea Goenagak piztu du Irrisarriko txondorra

Aizpea Goenaga zinema zuzendari eta aktoreak piztu du aurten Irrisarriko txondorra, euskarari eta euskal kulturari egindako ekarpena eskertuz. Urtarrilaren 1era bitarte, jendeak txondorra ikusteko aukera izanen du. Guztira, 15.000 kilo egur erabili dira.

Aizpea Goenaga txondorra pizten.

Iaz ongietorri beroa egin zieten herritarrek Olentzero eta Mari Domingiri.

Hutsik eginen ez duten ekitaldiak Eguberrietan

Antzerkiak, Olentzero eta Mari Domingiren bisita, elkartasun zozketa... Abendu betea izanen da

NEREA ALTZURI

Urte akabaila ere ailegatzen ari da eta urteroko hitzorduek hutsik egin ez dezaten, prestaketa lanetan ari dira azken asteotan herritarrak. Aitzineko TTIPI-TTAPAn aitzineratu bezala, aste honetan eskolako ikasleek antzerkiak eginen dituzte. Ortzirale honetan, abenduak 14, hiru antzerki eskainiko dituzte eskolako gimnasioan.

Abenduaren 24an, berriz, arratsaldez, herrian barna buelta eginen da Eguberrietako kantak kantatuz. Horrez gain, Olentzero eta Mari Domingi bisitan etorriko dira eta neska-mutikoek bi protagonistak agurtzeko aukera izanen dute.

Abenduaren 31n, berriz, Urtezahar-eguneko elkartasun kalejira eta zozketa eginen dituzte. Honen harira, aipatu, aurten ere boletoak salgai paratu dituztela.

Urte berrian sartuta, ilbeltzaren 5eko ilunabarrean, Hiru Errege Magoak bisitan etorriko dira eta kabalgata eginen dute.

Aldizkari hau urteko azkena denez, lerro hauen bitartez, urte berri ona opa dizuegu!

HERRI ESKOLA

Emakumeen kontrako indarkeriari ez

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, azaroaren 22an Udalak deituriko elkarretaratzean plazara atera ziren herritarrak indarkeria hori salatzera, tartean eskolako ikasleak, irakasleak eta gurasoak.

MARTIN LEGARRA

Janari eta arropa bilketak

Urtero bezala, Paris 365 taldearentzat janari bilketa egin dute eta aurten, Arantzan eta Igantzin, 3.100 kilo janari bildu dituzte. Bertzalde, herriko eskolan, behartsuentzako arropa bildu dute eta gobernuz kanpoko erakunde baten bitartez, India eta Hego Ameriketara igorriko dute.

Onda Cero irratiak elkartasun saria eman dio Elkarrizan-i

Jose Mari Irazoki eta Maribel Abrilek jaso zuten kohesioari eta inklusioari dagokion aipamena

TTIPI-TTAPA

Onda Cero irratiak laugarren urtez eman dituen elkartasun sarietako bat Bortzirietako Elkarrizan laguntza emaile taldeak eskuratu du. Zehazki, gizarte-kohesioari eta inklusioari dagokion aipamen berezia jaso zuen azaroaren 28an Iruñean. Ainhoa Aznarez, Nafarroako Parlamentuko presidentearen eskutik jaso zuten saria Jose Mari Irazokik eta Maribel Abrilek, Elkarrizan taldeko ordezkariek. 2004an Berako Udalaren laguntzarekin sortu zen Elkarrizan eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuaren Mankomunitataren laguntzaz, bertze herrietara ere hedatu da. Ordutik honat egindako lana azpimarratu du epaimahaiak eta «erakundeen erantzunik ez duten beharrei erantzuna ematen dien elkartea» dela ere aipatu du.

Maribel Abril eta Jose Mª Irazoki, tartean Ainhoa Aznarez dutela. UTZITAKO ARGAZKI

Baztan-Bidasoko artisauen azoka abenduaren 23an Lesakan

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko artisauek osatutako Argitsu Elkarteak azoka eginen du Lesakan. Abenduaren 23an, igandean, 10:00etan plazaratuko dituzte beraien produktuak. Ilunzeko 17:30-18:00 arte produktuak ikusi eta erosteko aukera izanen da. Bien bitartean, haurrendako jokoak eta musika ere izanen dituzte eta produktu-sorta bat zozketatuko dute.

Eskualdeko artisautza sustatzeko eta bere lana ezagutzera eman asmoz, urte honetako Aste Santuan egin zuen lehen agerraldia Argitsu elkarteak, Elizondon eta Urdazubin. Orain Lesakan izanen dute hitzordua.

"TELLETXEA" Lorazaintza
Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa
T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

Osatuz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILI PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Altzate 1 BERA

KSAT telekomunikazioak
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetriko ultralasterra
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

EDERKI tailerra
CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA
'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA
Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
- EGUNEKO MENUA
- SAGARDOTEGI MENUA
- KARTA
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK ...
Eguberri eta urte berri on!!!
OPARI TXARTELA Zure esku
T. 948 625 472 | Alasta karrika · BERA | zubiondojatetxea.com

Iker Espelosin zenari omenaldia eskainiko diote herrian

Txaruta pilota elkarteak antolatu du abenduaren 22an, afizionatuen arteko pilota partidekin eta afariarekin

MAIDER PETRIRENA

Txaruta pilota elkarteak Iker Espelosin Goizueta zena omenduko du abenduaren 22an. Iker Espelosinek hamar urtez jokatu zuen pilotan Txaruta elkartean eta emaitza bikainak lortu zituen. Omenaldiaren barrenean, arratsaldeko 6etatik aitzinera bi pilota partida antolatu dira afizionatuen artean. Sarrera doan izanen da.

Txapeldun handia izan zen Espelosin.

Gero afaria eginen dute Ulibeltzak elkartean. Abenduaren 19ra bitarte erosi ahal izanen dira txartelak 20 eurotan: Fonda eta Bustitz ostatuetan eta Doneztebeko Titi ostatuan.

Menua hau izanen da: frijituak, arrain-zopa, ajoarrieroa, aratxe masailak, postrea eta kafea.

Olentzerok bi ibilbide izanen ditu aurtengoan ere

Olentzeroren bi ibilbide eginen dituzte aurten ere. Eskolaldeko auzoan ibiltzen direnak 16:00etan izanen dute hitzordua beheitiko eskolan. Kozkorrak, berriz, elizatarian elkartuko dira ordu berean eta errepidearen bertze alde osoan abestuko dute.

Eskolako jaialdia abenduaren 21erako prestatzen ari dira

Eskolako irakasle eta ikasleak lanean dabiltza abenduaren 21ean beraien eguna ospatzeko eta egitarau zabala prestatu dute. 09:15etik 10:45era: mahai-jokoak izanen dituzte. 11:00etan Udalak eskainitako gosaria eta segidan kantak frontoian. Animatu!

MAIDER PETRIRENA

Mendi abesbatzak kontzertua

Nafarroaren Eguneko kontzertua eskaini zuen abenduaren 3an Doneztebeko Mendi Abesbatzak herrian. Bederatzi kantako emanaldi ederra eskaini zute eta herritar kuadrilla batek parte hartu zuen. Bertzeak bertze, Lete, Lertxundi eta Ansorenaren kantak izan ziren entzungai.

UTZITAKO ARGAZKIA

Juanjo Petrirenak onddo ederrak

Onddoak berandu atera badira ere horretan afizioa dutenek edozein lekutan aurkitzen dituztenaren adibidea dugu argazki hau. Azaroaren 21ean Juanjo Petrirena Murugarrenek argazkian ikusten diren onddo eder horiek aurkitu zituen. Eskuinean dagoenak 1,100 kiloko pisua dauka.

20:00etan dute hitzordua elizan. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mendi Abesbatzaren kontzertua ortziralean elizan

Donostiako Txistulariak, Mendi Ttiki Abesbatza eta Agorreta Musika Eskolako ikasleak ere izanen dira

MARGA ERDOZAIN

Abesbatzako kideak, Eguberrietako kontzertua eskaintzeko, buru-belarri ibili dira lanean. Abenduaren 14an, ortziralean, zehaztu dute hitzordua, 20:00etan, elizan.

Aurten Donostiako Txistulari Taldea etorri zenetik hamar urte bete direnez, haien bisita izanen dute. Baina Mendi Abesbatza eta Donostiako Txistulariak ez ezik, Mendi Ttiki Abesbatzako eta Agorreta Musika Eskolako ikasleek ere parte hartuko dute.

Batzuek zein bertzeek, Eguberri giroko kantak eta bertzelako melodiak «tentuz» aukeratu dituzte.

Nafarroa eta Bizkaiaren arteko herri-kirol desafioa abenduaren 22an

MARGA ERDOZAIN

Abenduaren 22an, larunbata, 18:00etan Ezkurra pilotalekuan izanen dute lehia. Nafarroa eta Bizkaia ariko dira aurrez aurre eta herri-kirol eta *cross-fit* norgehiagoka jokatuko dute. Arraiozko Xabier Urrutia eta Iruñeko Alex Fernandez Bizkaiko Ousmane Drame eta Oscar Perezen aurka ariko dira.

3.000 euro jokatuko dituzte, bikote bakoitzak 1.500. Bikote bakoitzak txanda librean 80 kiloko harriari 80 altxaldi eman beharko dizkiete, 70 kiloko txingekin 20 plaza eta 50 kilokoarekin bi, 50 kiloko pesa 50 aldiz altxatu eta kanaerdikoari 15 epai egin beharko dizkiete.

Xabier Urrutia arraioztarra ariko da.

Eguberrietarako antzerki emanaldia, filmak eta mendi-itzulia prest dituzte

MARGA ERDOZAIN

Abenduaren 21ean, ortziralean, Firin Farandula antzerki taldeak Eguberrietako emanaldia eskainiko du, 18:30ean.

Abenduaren 23an, igandean, berriz, zinema emanaldiak izanen dituzte. 16:30ean izanen dute lehendabizikoa eta *Hotel Transilvania III* filma ikusteko aukera izanen da; ondotik, 18:30ean, berriz, *La Tribu*.

Biharamunean, abenduaren 24an, berriz, Errekak antolatuta mendi ateraldia eginen dute, Saioara. Arratsaldean Olentzero eta Maridomingiren bisita izanen dute.

LARRETXEA EGVRRAK
Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra
Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

EVSKALDVNA
oSTATV JATETXEA
URTE ZAHARREKO AFARIA
Askotariko iberikoak
Foie bloka ahabi-marmelada eta ogi txigortuekin
Ganba handiak plantxan
Legatza izokinez beteta itsaski-saltsarekin
Azpizuna onddoekin, perretxikoekin eta Porto saltsarekin
Karamelu-tarta turroi-izozkiarekin eta txokolate beroarekin
Ardoak: Arabako Errioxako ardo beltz ondua;
San Martin Unxeko ardo gorria;
Rueda Verdejo ardo zuria; Gran Bach Brut cava.
Kafea eta mahatsak
Bidasoa 5, BERA T. 948 630 392

'Lau aulki hirurendako' ikusgai ortziralean

Bi emanaldi izanen dira, institutuko ikasle eta herritarrentzat, 15:00etan eta 18:30ean, hurrenez hurren

MARGA ERDOZAIN

Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak ekoitzi du *Lau aulki hirurendako* antzezlana, herritarren parte-hartzea sustatzeko planaren esparruaren barrenean. Antzezlanak partaidetzaren garrantzia eta balioa suspertzea du helburu.

Abenduaren 14an, ortziralean, eskainiko dute herriko zineman. Bi emanaldi eginen dituzte: lehenbizikoa 15:00etan, institutuko ikasleentzat eta bigarrena 18:30ean herritarrentzat. Emanaldien ondotik solasaldirako tartea hartuko dute. Guztiarekin ere, herritarren partaidetzak arazo publikoak konpontzerakoan dituen onurak plazaratu nahi dituzte. Horrela bada, hausnarketararako eta eztabaidarako mamia eskaintzen duen lana plazaratuko dute.

Antolakuntzako arduradunek bertaratzeko deia egin nahi izan dute eta zehazki bertaratzen diren herritarrak eroso egotea lortu nahi dute.

Ezkerretik hasita hirugarrena Maialen, Koteto Ezkurraren alaba. UTZITAKO ARGAZKIA

Gobernuak Koteto Ezkurra kirol-arloko «erreferente eztabaidaezin» izendatu du

MARGA ERDOZAIN

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek zuzendu zuen Kirol Merezimendurako 18 sariak emateko ekitaldia. Javier Eseverri areto-futboleko jokalaria eta Ezkurra erremontista «erreferente eztabaidaezinak» direla adierazi du. Bi hamarkadako ibilbide profesionalean jasotako palmaresetik harago, «kirolaren transmisioan eredugarritasun inbidiagarria» erakutsi dutela adierazi zuten. Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan egin zuten ekitaldia, Nafarroako Egunaren harira antolatutako ekitaldien programaren esparruan.

Santa Luzia Egunaren harira, feria eginen dute igandean

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 13an, ortzegunean, Santa Luzia Eguneko ospakizunak izanen dituzte. 11:00etako mezaren ondotik, Udalak Esther Garro jostunari Zilarrezko Titarea jantziko dio, bere ibilbidea omenduz. Ondotik, mokadutxoak eskainiko dituzte. Igandean, berriz, feria eginen dute. Eskulangileak, musikariak eta elkartasun ekimena izanen dira goizeko protagonistak. Arratsaldean merkatariek antolatutako zozketa eta tonbola izanen dituzte. Txokole beroarekin goxatuko dute eguna.

VIII. Areto-futbol Txapelketa hilaren 23tik 31ra

Doneztebe Futbol Taldeak antolatuta, abenduaren 23tik 31ra bitarte VIII. Areto-futbol Txapelketa jokatuko dute. Abenduaren 13ra arte eman daiteke izena. Parte-hartzaileek giro onaz gozatzeko aukera izanen dute eta irabazleentzat sariak izanen dira.

Errekak antolatuta Mendiaren Eguna abenduaren 15ean

Goizean mendi-irteera eginen dute Bonozorrotzera. Poteoan ibili ondotik, bazkaria eginen dute. 19:00etan *Manaslu o elegir entre valores* proiekzioa eskainiko dute zineman, Berako Julen Errandonea eta Iruñeko Alberto Urtasunen eskutik.

Olentzero eta Mari Domingiren etorrerarako prest daude gaztetxoak. UTZITAKOA

Tinkabella taldearen kontzertua izanen dute ostiralean

Abenduaren 14an, 22:30ean dute hitzordua eta Herriko Ostatua girotuko dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Eguberrien atarian musika hitzorduak dira nagusi herrian. Alde batetik, Herriko Ostatuan Tinkabella taldearen kontzertua antolatu dute, abenduaren 14rako, ostiralerako. Herritarrek eta bisitariek kontzertuaz gozatzeko aukera izanen dute 22:30ean.

Bestalde, Txitxilu guraso elkartearen eskutik, Olentzeroren etorreraren bueltan egin ohi den kalejirarako prestaketen harira, kanten entseguekin dabiltza. Zintzurrak berotzen hasiak dira. Abenduaren 9an, joan den igandean, hasi ziren eta datozen igandetan, 16an eta 23an, ere bilduko dira, ludotekan, 11:30ean. Bien bitartean, abenduaren 22an, larunbatean, Mari Domingiren bisita izanen dute. Ohi bezala, gutunak jasotzera etorriko da.

Hilaren 24an herriko karrikak kantuz eta musikaz girotuko dituzte eta etxez etxeko eskea eginen dute guraso eta gaztetxoek, 17:00etan. Ludotekatik. abiatuko dira eta karriketan barna ibili ondotik, Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria eginen diete. Ea aurtengoan ere zaku bete opari dakarten!

UXOA ELIZALDE

Talo jatearekin agurtu dute azaroa

Taloaren bueltan giro ederra izan zuten, azaroaren 30ean, herriko estalpean. Merienda-afari bereziarekin agurtu dute azaroa herriko guraso eta gaztetxoek. Abendurako indarberrituta daude eta Eguberrietarako ekitaldiak lotzen hasiak dira dagoeneko.

Naroa Elizaldek finalerdietan ez du aurrera egiterik izan

Abenduaren 2an Amezketan jokatu ziren finalerdietan 13-18 galdu zuen Oihana Orbegozoren aurka. Hasiera-hasieratik aurretik joan zen Orbegozo, 3-7 hasieran eta 5-10 ondoren. Elizaldek, ordea ez zuen amore eman eta partidan sartzea lortu zuen. Halere, ez zuen garaitzea lortu, 13-18 galdu zuen. Abenduaren 9an, promozio mailan Aldaik eta Orbegozok eta lehen mailan Arrizabalagak eta Espinarrek jokatzekoak zituzten Master Cup txapelketako finalak, Azkoitian.

UTZITAKOA

Zubialdek 'Tartalo' lana kaleratu berri du

Txalaparta argitaletxearen eskutik eta Bakarne Atxukarro eta Asun Egurzarekin elkarlanean, Izaskun Zubialdek *Tartalo* lana kaleratu du. Zubietako idazlearen zortzigarren lana hiru urte baino gehiagokoei zuzendua da. Formatu berezia du, antzerki-gidoi, abesti-letra eta partiturak biltzen baititu.

Clinica Dental
IRURITA RUBIO
ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA
Rx. Panoramikoa • Periodontzia • Odontopediatria
Kirurgia • Endodontzia • Protesiak • Hortz-zuritzea
PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)
DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19
948 450 267
EGUBERRI ON!
LEITZA
Manuel Lasarte, 7
948 610 713

Eguberrietako kantak kantatuz alaituko dituzte karrikak. ARTXIBOKOA

Eguberrietako jaialdia eskolan abenduaren 21ean

Abenduaren 24ko Olentzeroren etorrera prestatzen ari dira herrian

ARKAITZ MINDEGIA

Abendu erdialdea da dagoeneko. Eguberriak ate joka ari dira eta han eta hemen besta giroa da nagusi. Urtero bezala, Olentzeroren etorrera izanen dute abenduaren 24an iluntzean eta gauean opariak utziko ditu. Eguberrietako kantak kantatuz alaituko dituzte Iturengo eta Aurtizko txokoak.

Errege bezpera

Urtea hamabi mahatsak janez agurtuko dute baina besta egunek ez dute etenik izanen. Izan ere, errege bezpera ere egun haundia izaten dute. Joare soinuak zabalduko dira, bai Iturenen baita Aurtitzen ere. Egunez herriko gaztetxoek girotuko dituzte karrikak; gauean, berriz, helduek hartuko dute lekukoa. Afari eder bat eginen dute eta bestarekin borobilduko dute eguna. Horrekin batera, inauteri usaina sumatuko da herrian. Lehendik ere izanen dute zertaz gozatua.

Kantak, antzerkiak, luntxa eta zozketa hiruhilekoa agurtzeko

Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleek lehen hiruhilekoa akitzear dute. Burua oporretan izanagatik, lan ederrak egiten ari dira. Horren adierazgarri dugu Lehen Hezkuntzako 4., 5., eta 6. mailakoek kontsumo arduratsuaren inguruan jasotako hitzaldia. Ikasleek jolas bidez enpatia landu zuten. Bertzalde, Skolae programa martxan jarri dute, eta hainbat ekintzen bidez berdintasuna bermatzeko jarduerak eginen dituzte. 2019an gurasoekin elkarkanean aritzeko asmoa dute.

Bien bitartean, ordea, atseden hartu aitzinetik, urteroko jaialdia antolatu dute. Azken eguneko bestan denetarik izanen dute: luntxa, guraso elkarteak urtero ateratzen dituen boletoen zozketa, egutegien salmenta eta nola ez ikasleek eskainiko dituzten kanta, dantza eta antzerkiak izanen dituzte. Jaialdi horretan laugarren eta bortzgarren mailako ikasleek Iker Gorosterrazu irakaslearekin irailaz geroztik bertsolaritzan ikasi duten antzezlan bikaina ikusteko aukera izanen dute.

MARIA LARRETXEA

12 bikote mus txapelketan

Azaroaren 30ean mus txapelketa jokatu zuten Herriko Ostatuan. 12 bikotek parte hartu zuten eta Josetxo eta Iñigo Iparragirre izan ziren garaile (bi txuleta eta botila bat ardo). Bigarren Periko Altxu eta Josu Huizi izan ziren (gazta bat) eta hirugarren Laura Goñi eta Maria Larretxea (bi botila ardo).

Mikel Belarra idazkariari agurra egin diete

Agoizko Beñatek lortu zuen Zubieta eta Iturengo Udal Elkargoko idazkari postua. Dagoeneko hasia da lanean luzaroan idazkari izan den Mikel Belarraren lanpostuan. Udaletxeko langileek otordu baten bueltan agur ederra eta beroa egin zioten Belarrari.

Herritarrek Euskaraldian parte hartu dute

11 egunez Ahobizi eta Belarriprest rolak hartu dituzte herritarrek. Herrian eta herritik kanpo momentu guztietan euskarari merezi duen lekua ematen ahalegindu dira: lehen hitza beti euskaraz eginez eta ahal izan denean elkarrizketan euskara eutsiz.

Gripearekin hil zen Goietxeko Juan Bernardo Garmendia eta Joxepa emaztea.

1918 urteko gripeak 23 hildako eragin zituen herrian

Garai hartan 700 bizilagun zituen herriak eta elizako ezkilak jotzeari utzi zioten, eri zeudenak ez ikaratzeko

PELLO TELLETXEA

Orain dela ehun urte, Europa guztian gripe urtea izan zen. Gure zaharrek *gripe urtia* deitu zioten, eta Labaienen ere zer ikusi latza izan zen.

Garai hartan herrian 700 bizilagun inguru izanen ziren. Urte hartan 30 lagun hil ziren, buruiletik aitzinera gripearekin. Beldurgarria izan omen zen, elizako ezkilak jotzetik gelditu omen ziren, gaizki zegoena ez ikaratzeko.

Gertaera gogorrak denak, zehazki haietako bat oso mingarria, Gurutzeaundiko errotan izandakoa. Francisco Goñi Gorosterrazu, Iturendik etorri zen errotazain bere emazte Maria Bautista Urtzainkirekin (zubietarra). 1917an Franciscoren aita hil zen eta irailaren 27an, bere alaba, Rosalia. Handik bi egunetara bera ere bai. Bere emazteak tifusa harrapatu zuenez, ezin zien bi alaba Felicitas eta Klementxiari bularra eman eta Zubietara eraman zituen bere ahizparengana. Felicitas 10 hilabetekin hil zen eta Klementxi, ahulena, bizirik atera zen. Maria Bautista, Klementxi eta beste alaba Mikaela hartuta, Donostiko Martutene auzora bizitzera joan zen.

Klementxi Donostiako Gros auzoan bizi izan da, 97 urte bete arte. Bere sortetxeko argazki bat eskuratu nahi izan zuen, eta izan zuen bai! Rosalia, Mikaela, Felicitas eta Klementxia, Florentino Ibarra Goñi, Labaiengo zapatagilearen lehengusuak ziren.

Haur batzuk, gurasoak hil ondoren, beste etxeetan hartu zituzten zaintzeko. Adibidez, Antoneko edo Argentinako Maria, Labaiengo Arretxekoa zen jaiotzez eta Dolareko apaizak Monseñor Felipe jaunak hartu zuen hazitzeko.

Jose Maria Mutuberria hil eta handik urte batzuetara, 1936ko gerran, bere anaia Juan, Toledon hil zen.

Juan Bernando Garmendia Ferminenean jaio zen eta Goietxeko Joxeparekin ezkondu zen. Joxepa haurdun zegoelarik, 27 urterekin hil zen.

Poz batzuk ere izan ziren. Manuela Aldaia Grajirena, Arretxeko bordakoa gaizki zegoen, hil zorian, eta etxekoak zuloa egin omen zuten kanposantuan hobiratzeko, baina *Mañula* sendatu egin zen. Antsoeneko Francisco Juanotenarekin ezkondu zen eta 9 seme-alaba hazi zituzten (Bittoriano, Maritxu, Alejandro, Jose Mari, Jeronimo, Luis, Juanito, Miguel eta Mariangeles).



1918AN HILDAKOAK

HILDAKOEN ZERRENDA

Josefa Saldias Mindegia (70 urte), ilbeltzaren 6an.

Matias Antº Urroz Barberia (79 urte), ilbeltzaren 10ean, Lopenea (Beintza)

Pedro Miguel Mariezkurrena, martxoaren 14an, Alduncin-Galzañonea.

Alejandro Elizalde Bertiz (74 urte), maiatzaren 14an, Grajirena behea.

Jose Antº Oteiza Albiasu (66 urte), garagartzaroaren 30ean, Cantero.

Jose Francisco Saldias Noble, abuztuaren 29an,

GRIPEAREKIN HILDAKOAK

Rosalia Goñi Urtzainki (7 urte), buruilaren 27an, Gurutzeandiko errota

Josefa Mariezcurrena Garmendia (15 urte), buruilaren 28an, Alberron borda

Francisco Goñi Gorosterrazu, buruilaren 29an, Gurutzeandiko errota

Juan Bautista Aldaia Eratsun, buruilaren 29an, Arretxea.

Francisca Goñi Saldias, buruilaren 30ean, Arretxea. 5 seme-alaba zituzten: Alejandro, Jose, Maria, Juan eta Luisa.

Maria Teresa Jaunarena, buruilaren 29an, Bizargorrinea.

Joakina Etxeberria Telletxea (16 urte), urriaren 1ean, Arraitzenea.

Maria Angeles Elizalde Bertiz (78 urte) urriaren 1ean, Grajirena Behea borda.

Serafina Mutuberria Zozaia (33 urte), urriaren 2an, Grajirena Behea borda, 17 hilabeteko alaba utzi zuen.

Maria Saldias Etxekonanea (35 urte), urriaren 2an, Elizalde Goikoa. Hiru eta bi urteko alabak zituen.

Francisca Aldaia Hernandorena (8 urte), urriaren 3an, Antonea etxea.

Maria Etxegia Lasarte (8 egun), Iñatea.

Jose Maria Mutuberria Saldias (2 urte), urriaren 4an, Apezenea Goia.

Ignacia Grajirena Aldaia (16 urte), urriaren 6an, Etxeberria (Labaien)

Luisa Elizondo Eratsun (2 urte), urriaren 6an, Iñarrea.

Jose Bernardo Juanko (63 urte), urriaren 10ean, Egoburu baserria.

Juan Bernardo Garmendia Erro (27 urte), urriaren 10ean, Goietxea.

Mª Ignacia Grajirena Etxeberria, (47 urte), Arretxea borda. Urte gutxiko haurrak utzi zituen.

Martin Ezkurra (34 urte), Mitxelena, berez Illarregikoa (Ultzama)

Maria Micaela Baleztena Aldaia (27 urte), urriaren 13an, Garaxenea (Labaien)

Juana Josefa Grazirena Etxeberria (32 urte), urriaren 18an, Lotzabiango errota. 4 haur txiki utzi zituen.

Esteban Amondarain Elizondo (16 urte), urriaren 26an, Beintzako Martinea.

Maria Bautista Etxekonanea (77 urte), abenduaren 25ean, Mattikonea.

Hator, hator...

Eguberri on!

Katalogoak hogei urte

Duela 20 urte, 1998an, argitaratu zen Euskal Produktuen Katalogoa lehenbizikoz. Hasieran udal gutti batzuek parte hartu zuten. Gaur egun 135 toki-entitate dira partaide. Hamasei urte arteko haur eta gaztetxoendako jokoak, liburuak, diskak, filmak... biltzen ditu katalogoak; 6.100 produktutik goiti. Bi euskarritan dago: paperean eta Katalogoa.eus atarian. Interneteko bertsioan, produktu gehiago daude, eta urtean zazpi-zortzi buletin sortzen dituzte. Harpidetuz gero, argitaratu diren azken produktuak ezagutu daitezke. Paperezko bertsioa, berriz, urtean behin kaleratzen da.

KATALOGOA.EUS

Produktu bakoitzaren erreferentzia zehatza biltzen da: izena, argazkia, adin-tartea, prezioa eta baita non eskura daitekeen ere. Are gehiago, bilaketa egiteko bide ere ematen du, eta horri esker, hainbat parametro konbinatuz (produktu mota, prezioa eta argitaratze urtea zehaztuz, erraterako) bila zenbiltzan produktua errazago lor daiteke.

Joko eta jostailuekin ikasten dugu

Ikasketa prozesuan eraginkor izan daitezen, adin eta gaitasunen araberako egokiak diren jostailuak hobetsi behar dira.

Baztertu jostailu sexistak

Jostetaren bitartez, jendartearen arauak edo portaerak ikasten dira. Hortaz, estereotipo sexistak barneratzea, birproduzitzea eta iraunaraztea saihesteko, generoaren araberako erabilerak sustatzen dituzten jolasak baztertzea komeni da.

Jostailu egokiaren ezaugarriak

Jostailuak konbinatzea onuragarria da: sinbolikoak, errepresentaziozkoak eta didaktikoak. Izan ere, jostailu sinbolikoak irudimena garatzeko eta erabilera anitzetarako erabil daitezke. Areago, jostailuen funtzionamendua zehatz mehatz azaldu beharrean, euren kabuz lantzen uztea eraginkor gerta daiteke, umeak berak ere aurkikuntzak eginen ditu eta. Azken batean, jostailu on batek honako ezaugarri hauek bete behar ditu: interesa iraunarazteko gaitasuna, sormenerako bide ematea, garapen-mailara egokitzeko gaitasuna, erabilera aukera anitza, arriskurik ez izatea, erabilera-arauak dituena, talde jolasa sustatzea, moldagarria izatea, eskaintzen dituen balioen araberako salneurria izatea eta genero rolik ez sustatzea.

Hator, hator... Eguberri on!

Ez arriskatu eta bizipenak oparitu!

Zenbatetan huts egin duzu eginiko opariekin? Neurriarekin, kolorearekin, estiloarekin… asmatzea zail gertatzen da maiz. Materialak ez diren opariekin ez da halako arazorik izaten. Bizipenak, sentimenduak opari-tzea aukera ona izan daiteke eta momentu horiek pertsona berezi horrekin partekatzeko aukerarik izanez gero aunitzez hobe!

Ateraldi gastronomikoak, bidaia kulturalak, gustuko duen ikuskizunerako sarrerak, zerorrek egindako bideo edo kantaren bat, oroitzapenak astintzeko argazki bilduma, atseden hartzeko masaje lasaigarria, gustuko dituen gozoak, eskuz egindako opariren bat… aukerak mugagabeak dira!

Beharrezko guztia ez da materiala, eta maite dituzunekin denbora pasatu, besarkatu, gozatu eta gozarazi…

Mimatzea uste baino beharrezkoagoa delako…

balneario elgorriaga hotel-bainuetxe

EGUBERRIETAKO OPARIRIK HOBERENA!!

Egonaldietarako tokirik hoberena...

Erlaxatzeko unea...

Amesten duzun ongizatea...

Edertasuna oparitu...

Esperientzia gastronomikoa...

Kosmetika lerro berria...

Informazioa eta erreserbak:
www.sanvirila.com | 948 456 045

SAKEL GUZTIENTZAT EGOKIA!

-%50
BIGARREN ALEAN*
IDOIA
PERFUMERIASIDOIA.COM
*Fideltasun txartelarekin. Deskontua ale merkeenean.
Abenduaren 15etik-31ra

Hator, hator... Eguberri on!

Hazila bero, negua da gero **dio atsotitzak. Haize bolada hotzek kolpez harrapa ez gaitzaten, negu hotzean pentsatzen hasteko tenorea ailegatu da. Erosketak egitera joan eta poltsikoak lumatuta ez itzultzeko, aitzinetik, erosi beharrekoa antolatzea komeni da. Aurten joera minimalistek indarra galdu dute eta ikusgarritasuna nabarmenduko da. Bereziki, osagarriek indar handia izanen dute.**

BIZI-BIZI IBILTZEKO UNEA

Kolore biziak eranzteko eta ilunak janzteko momentua izaten da negua aunitzentzat. Aurten, ordea, gorria, zilar kolorea eta urdin ikusgarria izanen dira nagusi; egun ilunak kolorez argitzeko. Bizitasunak koloreek ez ezik, lentejuelek eta bertzelako apaingarri disdiratsuek ere emanen dute; bakoitzak hartuko ditu bere neurriak.

Bereziki, mozketa irregularrak dituzten jantziak (falda irekiak, jertse lasoak, aitzinetik motzak eta gibeletik luzeak...) eta marrazki ikonikoek, koadro- edo animalia-estanpatuek, bizituak (suge, zebra zein tigreena) ikusiko ditugu. Lumek ere beren tokia hartuko dute, ehundurak nahasteko momentua ailegatu da!

Dena dela, galtza bakeroek eta blusa zuriek beren eremuari eutsiko diete. Bakeroen kasuan ebaketa zuzena dutenak, gastatuak eta gerriraino ailegatzen direnak izanen dira nagusi; blusei dagokienez, berriz, *vintage* estilokoak: lepo borobilak, parpail edo bolantez honituak eta mauka lasoak dituztenak nagusituko dira. Bertzelako jantzi edo osagarri biziagoekin konbinatu eta horiek nabarmentzean dago gakoa.

OSAGARRIAK OINARRIZKO

Itotzekotan, ur handitan. Horixe izanen da aurtengoan osagarrien ezaugarria. Txapel dotoreak edo kirol-txanoak, zapiak edo turbanteak... burua bero-bero mantentzeko. Poltsa erraldoiak eta bereziki larruzkoak egonen dira indarrean. Horiek ez ezik, erosketa poltsen tankerakoak ere ikusiko ditugu, beharrezko guztia eskura izateko aukera eskaintzen dutenak. Bizkar-zorroak ere pil-pilean izanen dira, erosotasuna bilatzen dutenendako. Lepokoak luze eta finak eta belarri-takoak handi eta ikusgarriak izanen dira. Bata zein bertzea kolore bakarreko soineko soilak bizitzeko bikainak izan daitezke!

Eguberriak
ailegatu dira!
Ongi etorri Venta Peio
merkatal zentroetara
Eguberri
on
VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU
ABENDUAREN 5ETIK URTARRILAREN 8RA

Kolore eta gustu guztietarako Eguberriak

Olaia OTXOTEKO

Eguberriak nola bizi dituzten galdetu diegu, tradizio bitxienetatik hasita, momentu surrealistetaraino. Argi dago pertsona adina bizipen daudela Eguberrietan, baina era batera edo bertzera, familia eta lagunen goxotasunean bizi dituzten egunak direla ondoriozta daiteke.

Laura Igantzi
LESAKA

«Eskerrak estrak hor dauden, Eguberriek gastu handia ekartzen baitute»

Eguberriak jan, edan eta familia osoa elkartzeko aitzakiatzat ikusten ditu Laura Igantzik. Lesakarra izanik, gehien gustatzen zaiona Olentzero eguna da; «haurren ilusioarekin lotutako eguna izateaz gain, herritarrentzat tradizio handiko eguna da». Bertzalde, «diru kontuak» dira garai honetatik guttien gustatzen zaizkionak «eskerrak estrak hor dauden, gastu handia egiten baita egun horietan». Herritarrentzat Olentzero eguna garrantzitsua dela aipatu bezalaxe, Lauraren familiarentzat urtarrilaren 5a da tradizio egun. Izan ere, duela urte batzuk «etxeko ttikienei Erregeak etortzeko beraiek lo egon behar zirela erraten genien». Lesakarraren arabera, sei lehengusuak pentsatu gabe amatxiren gelan sartzen ziren Erregeek alde egina zutela erran arte. Nahiz eta urteak pasatu, politena «tradizio horrek bizirik segitzen duela» dela aitortu digu. Alde handia ikusten du orain dela 30 urteko eta gaur eguneko Eguberrien artean, batez ere ekonomikoa; «orduan baserrian zena jaten genuen eta, nire amaren garaian, paper eta arkatz bat oparitzea zen hoberena».

Joanes Lameirinhas
ELIZONDO

«Gaupasatik bueltatzen direnak saihestuz hasten dut urtea»

Ttikitako oroitzapenek bihurtzen dute batez ere Joanesentzat etapa «polit bat» Eguberriak. Familiarekin egoteko garai magikoa izaten zen, gaur egun berriz ikasi, lan egin eta denbora izatekotan, deskantsatzeko momentua bihurtu da baztandarrarentzat. Psikiatrikoan lanean dagoenetik urtea «ajearekin hasi beharrean, lanerako bidean, bestatik bueltatzen direnak saihesten» hasten duela dio. Eguberrietako hoberena bazkari eta afariak diren bitartean, garai honetako okerrena «faltsutasuna, Eguberritako publizitate sexista eta kontsumismoa» direla kontsideratzen du. Hala ere, Joanesek tradiziotzat du urteko harreman sozialen balantzea egitea, «abenduaren 31n niretzako urte osoan zehar garrantzitsuak izan diren pertsonei audio bat bidaltzen diet, beraiekiko sentitu eta pentsatzen dudan on eta txar guztia erranez». Aunitzetan, sentitzen duguna adierazten ez dugula azpimarratu digu: «garai hau honetarako bereziki espezialа iruditzen zait, bueltan jasotzen ditudan mezuak niretzako Eguberrietako opariak dira».

LAPITXURI
Dantxarinea
Tel. +34 948 599 093

OTXONDO
Dantxarinea
Tel. +34 848 478 879

OIHANA
Dantxarinea
Tel. +34 848 478 882

ADUR
Ibardin, Bera
Tel. +34 948 631 394

MIRENTXU
Ibardin, Bera
Tel. +34 948 630 717

XABI
Arnegi
Tel. +34 948 790 179

BIOK

ETXALAR
HOTEL-VENTA

HOTEL - VENTA - RESTAURANTE

Eguberri eta Urteberri on
lagun eta bezero izan zaituztegunoi!

**Abenduaren 16 eguerditik
urtarrilaren 11 arte ITXITA**

Iruñea - Irun errep. 60km · 31760 ETXALAR
T. 948 635 000 · F. 948 635 263
info@etxalar.com · **www.etxalar.com**

Ezkontzak, jaunartzeak,
lagunarteak, kinto bestak,
familia ospakizunak...

zure ospakizunak Etxalarko Bentan

Beola Etxea
VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA | T. 948 630 709
www.beolaetxea.com

Eguberri
eta urte berri on!!
Bezero
eta lagun guztioi!!

Xti · ICHI · smash! · SURKANA · BASS3D · Vilanova · CASUAL FRIDAY · BLEND · b.young · TIFFOSI

Oihane Mitxeo

DONEZTEBE

«Eguberriak kultura eta ohituraz beteriko oporrak dira»

Olaia OTXOTEKO

Berez ttikitan izan daitekeen ilusioa galdu duela dio Oihanek baina, hala ere, familia eta lagunekin ospatzeko opor egun politak kontsideratzen ditu Eguberriak. «Euskal Herrian dauzkagun kultura eta ohiturak disfrutatzea» da Oihaneri gehien gustatzen zaiona. Tamalez, ohiturak guttinaka gibelean uzten ari direla uste du, «kontsumismoak gidatzen ditu gaur egun Eguberriak, dena erosketak dira». Unibertsitatean ikasle, ez du besta egiteko aukerarik galtzen «urtarrilean azterketak izatea ez da inoiz etxean gelditzeko aitzakia izan. Gainera nire karrera nahiko praktikoa denez ez dut antolatzeko problemarik izaten». Pasa den urteko azken eguna eta baita lehen eguna ere Madrilen eman zituen; «diferentea da, nik uste ongi dagoela ikustea nola ospatzen duten urteko azken eguna bertze leku batzuetan». Hala ere, Oihanek argi dauka ez zituela Doneztebeko familia eta lagun arteko «urte zaharrak» deusengatik aldatuko

Maiana Mendiburu

SARA

«Haurrek duten ilusioa da gehien gustatzen zaidana»

Haurra zela Eguberriak «supazterrean» ospatzen zitueneko oroitzapenak ongi gordeak ditu Maianak, «hurbileko familiarekin, xumeki» ospatzen zituenak, hain zuzen. Orduko «oroitzapen onak» bihotzean, «bakoitzak opari bat» izaten zuela aitortu digu eta «horrekin pozik». Gaur egun ere atsegin ditu Eguberriak eta Euskal Herriko hiru herritan pasatzen dituela kontatu digu: «Saran, Oiartzunen eta Basusarrin. Familia elkartu eta momentu goxoak pasatzen ditugu elgarrekin». Egun horietan, «presoak eta haien senideak, hutsune hori dutenak» gogoan izaten ditu Mendiburuk eta Eguberrien bueltan sor-tzen den «gehiegizko kontsumoa» ere ez du gustuko. Bere irudiko, «momentu horre-tan, zentzua galtzen dugu». Baina bada Eguberrietatik bereziki maite duen zerbait: «haurrek begietan izaten duten ilusioa eta dirdira».

Pili Migeltorena

NARBARTE

«Mexikon eta Narbarten pasatzen ditut Eguberriak»

«Batzuetan Mexikon eta bertzeetan Narbarten». Halaxe pasatzen ditu Migeltorenak Eguberriak. Izan ere, senarrarekin eta bi alabekin Narbarten bizi bada ere, eta gurasoak hemengoak izan, sortzez mexikarra da eta hori izaten da «urtean behin sorterrira bisita» egiteko arrazoi nagusia. Mexikon duen familiaren «falta» sentitzen duela aitortu digu, eta «Eguberrietan are gehiago» sumatzen omen du hutsune hori. Baina hemen ere «kontent» igarotzen ditu egun seinalatu horiek, «gustuko» duelako «familiarekin biltzea» eta Eguberrien aitzakian, «jaiotza paratzea, apaintzea eta gauza berritzaileak egitea» ere bai: «diseinu grafikoa ikasi nuen eta eskulanak egitea gustatzen zait». Alaba zaharrenak hala eskatuta, aurtengo Eguberriak Narbarten pasatuko dituela erran digu: «Olentzerorekin karrikara aterako gara eta familian bildu eta otorduak eginen ditugu».



Kirol hitzorduak urte bukaerarako

Hamabi mahatsak jan aitzinetik hamaika pauso emateko ohitura errotua da Baztanen, Malerrekan, Leitzaldean eta Bortzirietan. Batean eta bertzean abenduaren 31rako lasterketak antolatzen dituzte; areago, pauso lasaiagoan ibili nahi dutenendako mendi-irteerak ere egiten dituzte Elizondotik eta Doneztebetik abiatuta. Ttipi-Ttapa urte bukaerako hitzorduak biltzen aritu da. Jantzi zure neurriko zapata eta gozatu ibilaldiaz!

DONEZTEBEN
LASTERKETA ETA MENDI-ITZULIA

Doneztebeen, abenduaren 31n, San Silbestre lasterketaren XIII. edizioa izanen dute. Urtero bezala, Herriko Etxearen parean dute hitzordua 18:00etan. Lehenak ateratzen 2005ean edo beranduago sortutakoek izanen dira eta zirkuituari buelta bat emanen diete; eta gero, helduek 3,5 kilometro eginen dituzte. Irabazleendako sariez gain, parte-hartzaile guztiei oroigarri bat emanen zaie. Opari eta zozketak ere eginen dituzte.
Mendizaleek goizean eginen dute buelta. Urtez urte errotuz doan ohitura Mendaurko buelta. 07:30ean Doneztebeko autobus geltokian bildu eta tontorrera goitituko dira. 10:30 inguruan tontorrean argazkia aterata agurtuko dute urtea.

LEITZAN
V. SAN SILBESTRE LASTERKETA

Bederatzi urte artekoek 16:30ean dute hitzordua eta 600 metro eginen dituzte; 10-15 urte bitartekoek 16:45ean bilduko dira eta 2.000 metroko buelta eginen dute; 16 urtetik gorakoak, berriz, 17:00etan abiatuko dira eta 4.000 metroko itzulia izanen dute. 15 urte artekoek euro bat eta 16tik gorakoek bi ordaindu beharko dituzte. Izena emateko kiroldegira jo edo 948 51 07 19ra deitu beharko da abenduaren 30a baino lehen eta ordainketa egunean bertan eginen da. Antolatzaileek mozorrotuta joateko deia egin dute eta mozorro xelebreenak saria izanen du.

sarobe®
okindegia gozotegia
Eztegara 25, Bera
31780 Nafarroa
Tel.: 948 630 899
www.sarobe.net

- Turroiak - Bonboiak - Polboroiak - Panetoneak - Pastak - Errege erroskoak...
guk eginak

Eguberri on !!

Goxune Kafetegia
IREKIA abenduak 25
eta urtarrilak 1 10:00-13:00
Errege eguna IREKIA 10:00-13:00
Sara karrika, 7 BERA · 948 630 235

Sara Kafetegia
ITXITA
abenduak 25 eta urtarrilak 1
Errege eguna IREKIA 10:00-13:00
Iturlandeta, 6 BERA · 948 625 673

ELIZONDON HAMARKADA BATEKO IBILBIDEA

Baztandar kirolariek Elizondo izanen dute topagune urteko hondar egunean. 17:00etan hasiko dira 12 urte edo gutiago dituzten gaztetxoak. Ordubeteren buruan helduek hartuko dute lekukoa. Izenematea 17:30ean irekiko da eta 3,9 kilometro eginen dituzte. Helduek euro bat ordaindu beharko dute; haurrek, berriz, dohainik izanen dute.

Bezperan, Baztango Mendigoizaleek ez dute hutsik eginen. 08:00etan Elizondoko plazan bildu eta Auzara joanen dira. Erratzutik abiatu eta Iñarbilen, Arginen bordan eta Harrigorrin barna Auzara ailegatuko dira. Depostitotik eginen dute buelta eta abiapuntuan bukatuko dute ibilbidea.

BORTZIRIETAN ELKARTASUNA ADIERAZIZ

Sare Lesakak antolatuta, VI. Elkartasun Lasterketa izanen dute. Joan den urtean bezala, 13:00etan abiatuko dira. Plaza Zaharrean dute irteera eta ia lau kilometroko buelta antolatu dute. Izen-ematea lasterketa hasi aitzinetik egin ahal izanen da.

Eguberrietako karta

HAMAIKETAKO ERAMATEKO JANARIA

948 631 017

Sarrerak
Itsaski entsalada
Entsaladilla errusiarra
Arrain pastela
Bieira gainerreta
Bakailaoz edo onddoz beteriko piperrak
Arrain zopa
Ziazerba eta ahuntz gazta hostorea
Onddo eta foie hostorea
Porru tartaleta
Txangurro krepak
Txangurroa labean errea
Porru eta ganbaz beteriko kurruskaria

Arrainak
Zapoa saltsa berdean
Legatza itsaskiz beteta
Legatza koxkera erara
Bakailaoa drunguru erara otarrainskekin
Bakailaoa saltsa berdean
Izokin biribilkiak itsaskiz beteak

Haragiak
Txahal biribilkia saltsan
Txerri azpizuna onddo saltsarekin
Ahate azpizuna foie eta mahats saltsarekin
Txerri masailak saltsan
Txahal masaiak ardo beltzetan
Bildots erdia errea (3 kg. ingurukoa)
Zerrikume errea (5 kg. ingurukoa)
Ahate confit-a laranja saltsarekin
Tenperatura baxuan eta hezurrik gabeko bildots errea

Enkarguak hartzen dira abenduaren 21a arte

Sara karrika, 7 - BERA (Agerran) Dendako ordutegia: 10:00-13:30 eta 17:30-20:00

Abenduaren 24ea
10:00-13:30

BORTZIRIAK
TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probextu aukerak!

Caser Residencial Anaka
%5 DESKONTUA
Egonaldietan, erreabilitazioan eta eguneko zentroan. Txartelduna eta bere 2. graduko senideak barne
Anaka, 8 | IRUN
T. 943 66 77 80

Agara Kirolak
%5 DESKONTUA kirol artikuluetan
%10 DESKONTUA ehiza arropetan
Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

Alzuri Elektrizitatea
%5 DESKONTUA etxetresnetan promozioetan ezik
Bittiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

Arturo
%5 DESKONTUA arropetan
Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

Bianditz Nekazarien etxea
%5 DESKONTUA pentsu ekologikoetan
Zalain Ind. 5 | BERA
T. 600 97 73 39

bixkiak Kirol eta modako arropa denda
%5 DESKONTUA
Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

bortzirudi
DESKONTUA
%15 Kamisetetan
%10 Inprenta lanetan
%5 kopia, enkuadernazio eta plastifikazioetan 3€tik goiti
* Aurrekontutik kanpo
Eztegara, 26 esk. behea | BERA
T. 948 63 15 21

elikaC Dietetika eta elikadura
%5 DESKONTUA kontsultan
Itzea, 6 behea | BERA
T. 948 63 12 83

Intzuri Optika
%5 DESKONTUA produktu guztietan
Bittiria kalea, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

TriSarri Land
%50 DESKONTUA sarreran
%10 DESKONTUA tirolina eta penduloetan
Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

Katea Bike
%5 DESKONTUA konponketetan
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

kattagorria
%10 DESKONTUA lentzerian
Beheko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

Lirain Estetika eta ongizate zentroa
%5 DESKONTUA kosmetikan
%5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik
Iparraldea, 1 | BERA
T. 948 62 57 17

Lesakako Udal Kiroldegia
%40 DESKONTUA matrikulan
Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

oreka nutrizioa eta dietetika
%5 DESKONTUA kontsultan
Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

Ostargi optika
%5 DESKONTUA produktu guztietan
Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HK podologia Nora Maiza
5 € DESKONTUA ibilkeraren azterketa digitalean
Legia, 42 | BERA
T. 688 87 81 77

Semper autoeskola
%10 DESKONTUA matrikulan
BERA | T. 948 63 02 98

Semper autoeskola
%10 DESKONTUA matrikulan
LESAKA | 948 63 82 99

ttipi-ttapa
%10 DESKONTUA eskeletan
Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

txinelka
%10 DESKONTUA erosketa guztietan
Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

Urdi Bera
% 20 DESKONTUA urteko abonuaren matrikulan
Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

ZK ze la KIROLAK
%5 DESKONTUA erosketa guztietan
Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

ZU Ioredenda dekorazioa osagarriak
%5 DESKONTUA lore moztuan 30€tik gorako erosketetan
Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

Eskualdeko 4.016 lagunek parte hartu dute Euskaraldian

Oro har, aurreikuspenak bete dira baina aitzinera begira «hartutako konpromisoei eutsi beharra» nabarmendu dute

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko 220.000 lagunek parte hartu dute Euskaraldian, tartean eskualdeko 4.016 herritar izan dira. Bortziritarrak izan dira gehienak. Bertako batzordeak adierazi duenez, «aurreikuspenak ezbairik gabe bete dira». Baztanen eta Malerrekan «gainditu» egin dira eta Leitzaldean «hainbat arlotako gazte, heldu eta adinekok» parte hartu dutela gaineratu dute. Txanponaren bertze aldean dira Xaretako datuak: «ezagutzen ditugun Senpereko familia euskaldun ainitz ez dira ageri eta 220 baino gehiago izan ahalko ginen». Saratik adierazi dutenez, datuak «kezkatzekoak» dira, «gazte gutik parte hartu duelako». Dena dela, izena eman duten Belarripresten jarrera nabarmendu dute: «zinez indarrak egin dituzte».

Aitzinera begirako erronkak

Orokorrean baikor daude, baina garbi dute helburua ez dela ez datuetara ezta hamaika egunetara lerratua ere. Bortzirietatik hamabigarren eguna erabakigarria izanen dela gaineratu dute: «hamaika egunez, lanez eta ahaleginez aldatutako hizkuntza-ohiturei eutsi behar genieke». Baztandarrek ere argi dute: «hartutako konpromisoak bete eta gazteleraz solastatzeko ditugun ohiturak behin-betiko aldatu behar genituzke». Leitzarrek horrekin bat egiten dute, eta horretarako, hautua «kontzienteki» hartu behar genukela adierazi dute. Malerrekan «erabilera» sustatzea dute jomuga, ezagutza baztertu gabe: «Mankomunitateak euskara doan ikasteko aukera eskaintzen du. Hori kontuan hartuz erabilerarako ekimenak, Solaslaguna erraterako, indatu behar genituzke». Senperen «mintza praktika talde bat sortu nahi dute, euskaraz mintzatzeko; irakasle batekin hiztegia eta esamoldeak aberasteko». Bide beretik, «euskara hutsean aritzeko arnasguneak» garatu beharra ikusten dute. Saratarrek «sentimenduan eta harrotasunean» eragin nahi dute: «hizkuntza hedatzeko eta errotzeko oinarrizkoa da».

BAZTAN	**1.072**	**946**	**126**
Almandoz	4	4	0
Amaiur	39	39	0
Aniz	24	24	0
Arizkun	63	55	8
Arraioz	31	29	2
Azpilkueta	17	15	2
Berroeta	21	19	2
Elbete	23	17	6
Elizondo	544	466	78
Erratzu	107	101	6
Gartzain	28	27	1
Irurita	54	44	10
Lekaroz	52	49	3
Oronoz	46	43	3
Ziga	19	17	2
BORTZIRIAK	**1.192**	**1.009**	**183**
Etxalar	88	82	6
Arantza	153	144	9
Igantzi	78	63	15
Lesaka	355	311	44
Bera	518	409	109
MALERREKA	**649**	**557**	**92**
Beintza-Labaien	16	15	1
Bertizarana	59	48	11
Donamaria	57	47	10
Doneztebe	189	156	33
Elgorriaga	19	18	1
Eratsun	29	27	2
Ezkurra	7	7	0
Ituren	79	67	12
Oiz	2	2	0
Saldias	19	17	2
Sunbilla	88	78	10
Urroz	25	17	8
Zubieta	60	58	2
LEITZALDEA	**663**	**609**	**54**
Leitza*	477	435	42
Goizueta	147	143	4
Arano	39	31	8
XARETA	**440**	**328**	**112**
Senpere	220	157	63
Sara*	220	171	49
DENETARA	**4.016**	**3.449**	**567**

*Aresoar batzuek Leitzan eman zuten izena; urdazubiar eta zugarramurdiar batzuek, berriz, Saran

Gasteizen eta Añanan izan dira elkarteko kideak

Bi autobusetan egin zuten ateraldia eta interesgune nagusiak ezagutzeko aukera izan zuten

FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko 102 lagunek, bi autobusetan banatuta, ateraldia egin zuten azaroaren 22an. Batzuk Gasteizen eta bertzeak Añanan izan ziren.

Añanan gatza ateratzeko prozesua ezagutu zuten

Añanara joan zirenak 10:15ean ailegatu ziren eta bi taldetan banaturik egin zuten bisita. Gidarien azalpenak interesgarriak izan ziren eta bertzeak bertze, gatza ateratzeko prozesua ezagutzeko aukera izan zuten. Erauzketa-prozesu hori historiaurretik egiten da eta garaiko arrastoak daude oraindik. Erromatarrek duela bi mila urte zerabilten sistema erabiltzen da oraindik. Udan zortzi gatzgile aritzen dira lanean: gatza atera eta zakuetan sartzen dute. Hilabete batzuk beranduago saltzeko prestatze-lanak egiten dituzte, Bisitaren bukaeran gatz poltsatxo bat eman zieten oroigarri gisa.

Gasteizen gune historikoak bisitatu zituzten

Batzuk Añanan ziren bitartean bertzeak Gasteizen izan ziren. Hemen ere gidariaren laguntza izan zuten eta horri esker, hiriko gune garrantzitsuenak ezagutzeko parada izan zuten: Florida parkea, parlamentua, udaletxea dagoen plaza, katedralaren fatxada, Andre Maria Zuriaren plaza...

Erdi Aroko karriketan barna ibili ondotik, El Portalon jatetxean bazkaldu zuten. Bazkalondoan San Anton plazara joan ziren, autobusak zain baitzituzten. Batzuek zein bertzeek egun ederra pasa zuten.

102 lagunek ateraldia egin zuten azaroaren 22an. FERNANOD ETXEBERRIA

Mendi batzordeak eta zuzendaritza taldeak bilkurak egin dituzte

FERNANDO ETXEBERRIA

Azaroaren 30ean, ortziralean, elkarteko mendi batzordea hainbat kontu lotzeko bildu zen. Urtean zehar eginiko mendi-irteerak laburbilduz hasi zuten bilkura. Zehazki, hamaika irteera egin dituzte eta guztira 475 lagunek hartu dute parte. Oraindik urteko azkena falta dute, abenduaren 18an, heldu den asteartean, eginen dute, Donezteben.

Heldu den urteko irteerak

Aurtengoak errepasatzearekin batera, heldu den urtekoak zehaztu zituzten: urtarrilean Lesakara, otsailean Hondarribira, martxoan Arantzara, apirilean Etxalarrera, maiatzean Leitzara, ekainean Berastegira, uztailean Txamantxoiara, abuztuan Larraitzera, irailean Saioara, urrian Pirinioetara, azaroan Urdazubira eta abenduan Berara joanen dira.

2019ko irteerak prest. ARTXIBOKOA

Elkarteari esker onak

Bilera borobiltzeko mendi batzordeak elkarteko zuzendaritza taldea eskertu nahi izan zuen, Santiago Bidea egiteko ez ezik, Txindokiko, Gorbeiako, Petretxemako eta Eratsungo ateraldiak egiteko emandako laguntza ekonomikoarengatik.

Zuzendaritzaren bilkura

Mendi batzordeak ez ezik, zuzendaritza batzordeak ere bilkura egin zuen, eta aitzinera begirako erabakiak hartu zituzten. Batetik, idazkariari soldata igotzea erabaki dute. Bestetik, klaseak eskaintzen dituzten irakasleak Gizarte Segurantzan alta emana dutenak izan behar dutela adostu dute eta 2019rako 539.690 euroko aurrekontua zehaztu dute. Era berean, Nafarroako Kutxak programetarako eskainiko dituen diru-laguntza deialdiez solastatu ziren eta Arkupeak elkarteak Nafarroako Erretiratuen Elkartean parte hartu duela nabarmendu zuten. Zuzendaritza Batzordea heldu den ortzegunean, abenduaren 20an, elkarteko ordezkariekin bilduko da, guztiaren berri emateko.

Errespetuzko harremanen alde kanpaina herrian

Udalak lona martxoaren 8an, inauterietan, Malerreka Egunean... zintzilikatzeko asmoa adierazi du

JAIONE ZABALO

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Udalak errespetuzko harremanak aldarrikatzeko olana zabaldu zuen, udaletxeko balkoitik. Helburua bikoitza zen: batetik, eraso matxisten aurkako borroka; eta bestetik, errespetuan oinarritzen den eskualde bat aldarrikatzea.

Era berean, lona hori beste egun batzuetan zabaltzeko asmoa adierazi dute: martxoaren 8an, inauterietan, Malerreka Egunean...

Idazkari aldaketa

Udalaren kanpainarekin batera, aipatzekoa da idazkari aldaketa izan dutela Saldias, Eratsun eta Ezkurrako udaletan. Bost lagunek hartu zuten parte hautaketa-prozesuan eta horietako bik euskara proba egin behar izan zuten. Azkenean, epaimahaiak hala erabakita, Mari Jose Ezkurrak bete du lanpostua. Orain arteko ordutegia mantenduko dute. Hau da, Ezkurran, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 15:15era eskainiko dute zerbitzua.

JAIONE ZABALO

Ikasiz eta gozatuz azarotik abendura

Azaroaren 29an Kristina eta Helenaren eskutik lehen sorospenei buruzko tailerra egin zuten jubilotekako kideek. Larunbatean, azaroaren 1ean, berriz, Euskaraldia Kantuz izan zuten herrian. Kantaldiaren ondotik, Barrankan gosaldu zuten.

Euskal Herria plaza oinezkoentzat jarri dute behin-betiko

Kotxeentzako pasabidea itxita badute ere, zamalanak egiteko aukera izanen da

JM BARRIOLA

Bost hilabete pasa dira Udalak aste osoan autoei plazarako sarbidea ixtea erabaki zuenetik. Aurretik asteburu eta jaiegunetan bakarrik ixten zuten. Bost hilabeteok pasata eta auzotarren gehiengoak neurria egokia dela iritzita, behin-betiko ixtea erabaki zuten azaroko azken udal batzarrean. Kotxeentzako pasabidea itxita badago ere, zamalanak egiteko aukera izanen da.

Plazan lasai ibili ahal izanen dira.

Neurri hori *Leitza urratsez urrats* proiektu zabalago baten barnean ulertu behar da. Plangintza horrek, zehazki, hiru lan ildo ditu: trafikoari, irisgarritasunari eta segurtasunari lotuak. Honekin beste urrats bat eman dute.

Indarrean dagoen espetxe politika aldatzeko elkarretaratzea larunbatean

JM BARRIOLA

Indarrean dagoen espetxe politika aldatzea eskatuko dute abenduaren 15ean, 12:30eko elkarretaratzean. «Elkarbizitzan, bakean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako etorkizuna eraikitzeko» helburuz bilduko dira eta adierazi dutenez «horretarako iraganeko minak sendatzea ezinbestekoa da». *Leitza Saretzen*ek antolatu du elkarretaratzea eta aldarrikapenak ageriko egiteaz gain, ilbeltzean Bilbon eginen den manifestaziorako deia zabaldu nahi dute.

LEITZAKO UDALA

Haur-eramaile tailerra egin dute

Anikotek antolatuta, azaroaren 30ean haur-eramaile tailerra egin zuten. Parte-hartzaileen arabera, «oso interesgarria» izan zen. Urtarriletik martxora bitarte tailer gehiago eginen dituzte: autodefentsa, hirugarren adinekoentzako gimnasia, gorputz oreka... Izen-ematea zabalik ostegunera arte.

Garbigunearen irekiera abenduaren 17an eginen dute

Mankomunitateak bi garbigune irekiko ditu abenduaren 17an: bata Leitzan eta bestea Goizuetan. Leitzakoa asteartero (10:00etatik 16:30era), ostegunero (15:30etik 19:00etara) eta hilabetero bigarren larunbatean (10:00etatik 13:00etara) irekiko dute.

Iera Agirrek ez du Master Cupen aurrera egitea lortu

Olatz Ruiz de Larramendiren aurka 18-11 eta joan den urtean irabazle izan zen Leire Etxanizen aurka 10-18 galdu zuen azaroko kanporaketetan. Ondotik, Eneritz Arrietaren ordezko gisa ere aritu da. Garaipenik lortu ez badu ere, ikuskizun politak eskaini ditu.

KATIXA ASTIBIA

Indarkeriaren aurkako ekitaldiak herrian

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan hainbat ekitaldi izan dituzte herrian: *Él nunca me pegó* dokumentala, kontzentrazioa, poteo feminista, bazkaria, *Emakume basatia* ipuin-kontaketa... *Leitzaldean libre izan nahi dugulako* lelopean bildu ziren.

Mankomunitateko teknikaria eta udalerrietako ordezkariak. UTZITAKOA

'Erein ohitura, egin konposta' kanpaina abian da

Leitza eta Goizuetako garbiguneak abenduaren 17an irekiko dituzte

TTIPI-TTAPA

Kanpainak Nafarroako Hondakin Legeak ezarritako organikoaren %50a bereiztea du helburu. Egun, Mendialdea Mankomunitateak, modu horretan, materia organikoaren %14a jasotzen du. Hori horrela, ingurumen ikuspegitik sortzen dugun hondakinen inguruan «ardura hartzea» eta «Hondakin Legeak zabortegira isuritako zabor tonengatik ezarri duen kanona murriztea» lortu nahi dute.

Ekainean onartu zuten gai organikoa bildu eta kudeatzeko 2018-2020 Plana. Horren arabera, materia organikoaren %100a konposta bidez kudeatzeko helburua jarri zuen. Erabaki horrekin gertuko ekonomia bultzatzea eta hondakinen Culebrete plantaraino egin beharreko 120km-ak saihestea lortu nahi dute. Arrazoi horiengatik guztiengatik, herritarrak auzo-konposta eta etxe-konposta egitera bultzatzen ditu eta izena ematera animatzeko deia luzatu dute. Agerraldian irudia aurkeztu zuten eta kanpainaren kontrola eramateko eta parte-hartzaileei laguntza eskaintzeko LUAR langilea kontratatu dute.

UTZITAKO ARGAZKIA

Euskararen Eguna giro ederrean

Eguna hasteko dokumental emanaldia izan zuten. Elkartean banabarrak jan eta bideo bat ikusteko bildu ziren. Baserritar jantzi dotoreenak aukeratu zituzten. Helduetan Jabi eta Izarok eta haurretan Telmo, Aiert, Jare eta Maddik jaso zuten saria; musean, berriz, Kontxi eta Milagros izan ziren txapeldun.

UTZITAKO ARGAZKIA

Guraso eta haurrak Amaiurren izan dira

Guraso elkarteko kideak eta haurrak Amaiurren izan ziren azaroaren 24an. Monolitoa bisitatu eta taloak egin omen zituzten eta kontatu digutenez, «primeran» ibili ziren. Irteeratik bueltan Eguberriei begira hasiak dira. Gabonetako saskia zozketatzeko prest dute eta Sastinean dago ikusgai.

Umore Onako bazkideen eguna igande honetan

Urtezahar arratsalderako mus txapelketa ere antolatu du eta pilota eskolak antolatutako III. pilota txapelketa abiatu da

TTIPI-TTAPA

Umore Ona elkarteko batzorde berriak bazkideen eguna indartu nahi du. Hori dela eta, zenbait aldaketa izanen dira aurtengoan. Hasteko, egunez aldatu eta larunbatean egin ordez, igandean eginen dute. Hortaz, igande honetan, abenduaren 16an eginen dute. Beste aldaketa, aurten bazkarirako menu herrikoia izanen dela: zizka-mizkak, marisko paella eta postrea. Dena bortz eurotan. Abenduaren 9an bukatu zen txartelak eskuratzeko epea.

Sari potoloak mus txapelketan

Beste urte batez, Urtezahar arratsaldean mus txapelketa ere antolatu du Umore Onak. 16:00etan hasiko da elkartean. 10 euro ordaindu beharko dute bikoteek, baina sari potoloak ere izanen dira aurten: bikote txapeldunak 100 euro eta oparia eskuratuko ditu, txapeldunordeak 50 euro eta oparia eta hirugarren eta laugarren sailkatuek ere bere oparitxoa eskuratuko dute.

Pilota txapelketa

Pilota txapelketaren hirugarren edizioa antolatu du pilota eskolak eta azaroaren 30ean jokatu dituzte lehen partidak. Lau kategoriatan banatuak jokatuko dute: umeak (benjaminak), kimuak (alebinak), haurrak (infantilak) eta 22 urtez azpikoak.

Kategoria bakoitzean zortzi bikote ari dira, guztira Nafarroako eta Gipuzkoako 32 bikote eta 64 pilotari. Hernani, Añorga, Oiartzun, Orereta, Azpeitia, Andoain, Bergara, Leitza, Lekunberri, Donezteb e, Bera, Irurtzun, Arbizu eta Goizuetako pilota klubetako pilotariak ari dira parte hartzen. Partidak, ostiraletan 17:30ean hasita eta larunbatetan 16:00etan hasita jokatuko dituzte, zazpi asteburutan. Lehenbiziko lauretan ligaxka jokatuko dute, beste bi asteburutan finalerdiak eta urtarrilaren 12an finalak.

Pilota eskolako txikienetako batzuk, nahiz eta txapelketan parte ez hartu, lagunarteko partidak ere jokatzen dituzte astebururo.

FELIX LOIARTE

Feria Eguna bikaina izan da aurten ere

Giro bikaina izan zen aurten ere Feria Egunean. Betizuak protagonismo berezia izan zuen eta herri bazkarirako 430 txartelak bi egun lehenago agortu ziren. Argazkian ageri den herriko talde mistoaren eta Indarriko emakumeen arteko giza-proban herritarrak nagusitu ziren.

FELIX LOIARTE

Pediatra eskatuz elkarretaratzea

Goizueta eta Aranoko familiak, Osasunbideak pediatraren zerbitzua berriz Goizuetan jartzeko mobilizatzen ari dira. Azaroaren 23an elkarretaratzea egin zuten Xalto eskolan. Gurasoek idatzi bat erregistratu zuten udaletxean. Bertan, alkatea Osasunbideko arduradunen batekin biltzea eskatu zuten, gai honetaz aritzeko. Gainera, zerbitzu hau eskatuz astero elkarretaratzea egiteko asmoa ere azaldu zuten.

Nazioarteko festa prestatzen ari dira abenduaren 22rako bertan bizi diren etxeetako emakume zaintzaileak

Abenduaren 22an ospatuko den nazioarteko festarako burubelarri lanean dabiltza bertan bizi diren etxeetako emakume zaintzaileak. Ospakizuna arratsaldeko 6etan hasiko da, *Gure etxeetan lanean dauden Honduras eta Nicaraguako emakumeen testigantzak* hitzaldiarekin. Ondotik, Udalak omenaldia eginen die eta bukatzeko, hainbat herrialdetako janaria dastatzeko aukera izanen da. Guztia eskolako jantokian izanen da.

UTZITAKO ARGAZKIA

KONPOSTA

mendialdea mankomunitatea

Erein ohitura, egin konposta

ZERGATIK HONDAKIN BIHURTU BALIABIDE DENA?

Sortzen dugun hondakinen erdia organikoa da, lagundu irtenbide jasangarri bat ematen!

Nafarroako hondakinen lege berriak, organikoa baliabide bihurtzeko nahiaz, **organikoaren %50a** bereizita kudeatzeko helmuga ezarri du. Horregatik, materia organikoa bereizi eta ongi kudeatzera behartzen gaitu.

Mendialdea Mankomunitatean gaur egun %14 konpostatzen dugunez, 2018-2020 bitarteko plana osatu dugu legeak ezarritako xedea betetzeko. Bereizketa hau sustatzeko asmoz legeak zerga berri bat ezarri du zabortegira isuritako hondakina kontuan hartuko duena. Zentzu honetan, **urtetik urtera zerga hau garestiago** izango da; aurten jada Mendialdea osatzen dugunok 10.000€ gehiago ordainduko dugu, datorren urtean 20.000€ izango dira... eta egoera aldatzen ez badugu 2020 urtetik aurrera 40.000€ko gainkostua izango du organikoa zabortegira isurtzeak.

Organikoa baliabide bihurtzeko helburuarekin, Mendialdeak tresna batzuk martxan jarri ditu, Nafarroan aitzindari direnak. **Herri txikietako organikoaren %100 herrian bertan kudeatzeko** urratsak ematen ari gara eta gainontzeko herrietan, ahalik eta biztanle gehien animatu nahi ditugu organikoa bereizteko pausua ematera.

GUZTION PARTE HARTZEAREKIN LORTUKO DUGU!

948 51 04 44 - info@mendialdea.eus - EIBARREN, 1, 2 - 31880 LEITZA

Mendialdea Mankomunitatea
Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra
residuos de navarra nafarroako hondakinak
Oficina de Prevención de Residuos y de Impulso a la Economía Circular
Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoa

Gavarnietik Taillon mendira egindako irteera.

Kuadrilla ederra elkartu ziren azaroaren 27an Arizkunen. ONDIKOL

Bideo emanaldia antolatu dute mendigoizaleek

Abenduaren 28an 'Hartz eta otsoekin lotan' eta Taillon mendira egindako ateraldiko irudiak ikusgai izanen dira Iruritan

TTIPI-TTAPA IRURITA

Urteko azken hitzorduei begira hasiak dira Baztango Mendigoizaleak. Hilaren 23an Lekaroztik Legatera irteera antolatu dute eta 30ean Erratzutik Auzora. Tartean, ordea, mendiko botak utzi eta bertzelako ekitaldi bat ere antolatu dute. Abenduaren 28an bideo emanaldia eskainiko dute Iruritako Gizarte Bilgunean, 20:00etan. Alde batetik, Iñaki Atxa Aranbururen *Hartz eta otsoekin lotan* bideoaz gozatzeko aukera izanen dute eta bertzetik, baztandarrek Taillon mendira (3.144 metro) egindako ateraldiko irudiak gogoraraziko dituzte.

Jubilotekakoek txokolate-jatea egin dute Arizkunen

Azaroaren 27an elkartu ziren Arizkun, Elizondo, Erratzu, Urdazubi eta Zugarramurdiko 25 erabiltzaile

TTIPI-TTAPA ARIZKUN

Arizkun, Elizondo, Erratzu, Urdazubi eta Zugarramurdiko jubilotekako 25 lagun elkartu ziren azaroaren 27an Arizkunen.

Hasteko txokolatada egin zuten, eta ondotik, bingoan aritu ziren. Gainera, sariak ere banatu zituzten, inguruko merkatarien laguntzaz lortutakoak. Bide batez, arduradunek eskerrak eman nahi izan dizkiete laguntza eman zuten merkatariei.

Aski tarte atsegina pasatu zuten, hitzorduari esker garai batean Arkupeak Elkartearen bidez ezagututako lagunekin egoteko aukera izan baitzuten.

Ekaitz Masustak eskaini zuen ikastaroa Anizko Jauregian eta Arizkungo Dutarian. UTZITAKO ARGAZKIA

Azienden bazkari buruz aritu dira Arizkun eta Anizen

EHKOk antolatuta, behi, ardi eta ahuntzek jaten dutena ongi orekatuta dagoen aztertzen duen Obsalim metodoaz aritu dira

TTIPI-TTAPA

EHKOk antolatuta, behi, ardi eta ahuntzek jaten dutena ongi orekatuta dagoen aztertzen duen Obsalim metodoari buruzko ikastaroa egin berri dute Baztanen, zehazki, Anizko Jauregian eta Arizkungo Dutaria nekazal etxalde ekologikoetan.

Obsalim metodoaren bidez, azienden itxura eta gorotzak aztertzen dira eta azterketa horien bidez modu orekatuan bazkaturik dauden ikusten da; Ikastaroa azaroaren 17an egin zen EHKO elkarteak antolaturik eta Ekaitz Masustak eman zuen. EHKO elkartea Euskal Herriko bio-baserritar agroekologiko eta herritarren kolektiboa da eta Nafarroa eta Gipuzkoako zazpi nekazari bildu ziren. Horietako batzuk esnetako behiak zituzten eta bertzeak ardiak.

'Che América' ikuskizuna igandean Arizkunenean

Che América latinoamerikarren ikuskizuna izanen da abenduaren 16an, igandean 19:00etan Arizkunenean. Renata Marchessi, Andrés Amadé, Claudio Apo Meneses eta Pablo Ferraro musikariek parte hartuko dute Arte eta Kultura programako emanaldian.

'ZAD bizi dutenen ahotik' liburuaren aurkezpena

Abenduaren 20an *ZAD bizi dutenen ahotik* liburua aurkeztuko dute Elizondoko Amezti elkartean. Iñaki Etxeleku egilea bertan izanen da. Hitzordua 19:30ean izanen da eta Amezti elkarteak, Idazleekin Solasean taldeak eta Aroztegia eta gero zer? -ek antolatu dute. Bertzalde, abenduaren 20 eta 21ean herri-mugimenduko eragileen materialekin herri-denda eginen dute Amezti elkartean: Askapena, Ernai, Aroztegia eta gero zer? Bilgune Feminista, Hazitik Hozie, Sortu...

Arraiozko neska-mutikoak Olentzerorekin. Ondoan, Olentzero herrira egindako bisitan. NEREA MORTALENA

Eguberrien zain ilusioz daude Arraiozen ere

Olentzero ttiki ospatuko dute haurrek eskolan abenduaren 21ean eta gurasoek bazkaria antolatu dute egun horretarako

NEREA MORTALENA

Urtero bezala, Olentzeroren etorreraren esperoan daude Arraiozko haurrak ere. Abenduaren 21ean, Olentzero ttiki ospatuko dute haurrek eskolan. Gurasoek bazkari bat antolatua dute eskolan egun horretan. Abenduaren 24an, Gabon Gau Egunean, bertze herrietan gertatuko den bezala, Olentzero etorriko da Arraiozera. Ohiko tradiziori jarraituz, herriko haur eta gurasoek txokolate bero-beroa hartuko dute Zubiondo ostatuan Arratsaldeko 5:30ean izanen da txokolate-jatea eta arratsaldeko 6:30ak aldera Olentzero etorriko da herrira herritarrak bisitatzera. Olentzerorekin herrian barna ibiliko dira musikaren laguntzarekin. Akitzeko Olentzerok herriko haur eta helduei opariak banatuko dizkie eta berriro ere mendira bueltatuko da hurrengo urtera arte agurtuz.

Abenduaren 25ean, Eguberri Egunean, herriko haurrek Eguberrietako kantak kantatuko dituzte.

Urtarrilaren 1ean, Urteberri egunean haurrak eskean ibiliko dira etxez etxe urtetxak biltzen eta urtarrilaren 6an, Errege Egunean, meza berezia izanen da, haurrek antzerkia eginen baitute. Urtero bezala jaiotza erakusten duen antzerkia eginen dute.

Eguberrietako kontzertuak Zigan eta Amaiurren

Baztan Udal Musika Eskolako ikasleek Eguberrietako kontzertua eskainiko dute abenduaren 15ean Zigako elizan (larunbatean 17:30ean). Elizondoko Musika Bandak, berriz, abenduaren 29an eskainiko du Amaiurko elizan, 18:00etan hasita.

Elizondoko Lanbide Eskolaren enpresa simulatua saritua

Donapea institutuak antolatuta, Nafarroako enpresa simulatuen IX. Azokan Elizondoko Lanbide Eskolako Erdi Mailako Ekomu enpresak hobeki apaindutako standaren saria jaso zuen (50 euro). Saria inguruko Gobernuz Kanpoko Erakunde bati emanen diote.

Diana Iniestaren '12 negu Baztanen' ikusgai Iruñean

Erratzun bizi den Diana Iniesta margolari kataluniarraren *12 negu Baztanen* erakusketa zabalik dago abenduaren 30a bitarte Iruñeko Gaztelu Enparantzan dagoen Iruña Kafeko Kasino Berri Nagusian. Hamabi urteotan olioz egindako margolanak ikusgai ditu.

Hainbat ekitaldirekin ospatu dute Euskararen Eguna

1.072 baztandarrek parte hartu dute Euskaraldian; horietatik 946 Ahobizi izan dira eta bertze 126ak Belarriprest

TTIPI-TTAPA

Giro ezin hobea lagun, Euskararen Eguna ospatu zuten abenduaren 3an Elizondon.

Bertako euskalgintzak antolatuta, ekintza ugari egin zituzten. 11:30 aldera, plazatik abiatuta, kalejira jendetsua egin zuten Elizondoko karriketan barna, Jo ala Jo kultur taldeko musikariek alaituta. Euskaraldian protagonista izan diren Belarriprest eta Ahobizik ere ez zuten hutsik egin eta kalejiran ibili ziren. Plazara ailegatu eta dantza batzuk egin ondotik, Jo ala Jo taldeko txalapartarien eskutik hasi zen plazako saioa. Ondotik, Gaztelu abesbatzak gidatuta, hainbat abesti kantatzeko aukera izan zuten bildutakoek. Jon Barberena bertsolari elizondoarrak kantaturiko bertsoak eta Marijo Indaberek prestaturiko baztan-zopek borobildu zuten eguna.

Euskararen Egunean, bertzeak bertze, kalejira egin zuten Elizondon. NEREA ALZURI

Euskaraldia Baztanen

Aipatzekoa da Euskararen Egunean akitu zela Euskaraldia, Baztanen uste baino izenemate gehiago izan dituen ekimena: 946 Ahobizi eta 126 Belarriprestek parte hartu dute. Orain, 11 egunez hartutako konpromisoarekin segi eta erdarazko ohiturak 365 egunetan euskarazkoengatik aldatzea izanen da erronka.

'Jolastuko gara?' Ikastaroa abenduaren 19an Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Jolastuko gara? goiburupean, familiendako euskarazko jolas eta kantuen ikastaroa antolatu du Dindaia Fundazioak, Baztango Euskara Zerbitzuaren eta Baztango Udalaren laguntzarekin, abenduaren 19an Arizkunenean, 17:00etatik 19:00etara. 0-3 urte bitarteko haurrendako eta haien gurasoendako ikastaroa da.

Tailerra doan da, baina plaza mugatuak izanen dira. Izena emateko azken eguna abenduaren 17a izanen da. Horretarako 948 58 00 06 telefonora edo euskara@baztan.eus helbide elektronikora idatzi behar da. Baztanen erroldatutakoek lehentasuna izanen dute.

Haurtzaindegi zerbitzua ere izanen da. Lehen zatia gurasoekin bakarrik izanen da, ordu eta erdiz. Bigarren zatian, azken ordu erdian, gurasoek eta haurrek elkarrekin ikasitakoa landuko dute, kantuan eta jolasean.

Urte akabailakoak eta hasierakoak prest dituzte Anizen

Olentzero etorriko da abenduaren 24an, afaria Mendiarten urtezahar-gauean eta urtats eguna biharamunean

MAITANE MARITORENA

Kultur Asteburuaren ondotik, urte akabailakoak eta hasierakoak prestatzen hasiak dira Anizen. Abenduaren 24an Olentzero etorriko da. 17:30ean eginen dute hitzordua Anizko frontoian. Olentzeroren panpina soinean hartuta etxez etxe ibiliko dira kantari. Herri ttipia izanagatik, 17:30ean hasi eta 20:30ak artio ibiliko dira Bentatik hasi eta Askagain artio. Hondarreko etxean kantatu ondotik, zanpa ase eta betea, norbere etxerat afaltzerat, erregaluak hartzera joanen dira.

Abenduaren 31n Anizko Mendiarte elkartean urteari akabaila emateko afaria eginen dute aniztarrek, eta biharamunean, urtats egunean, berriz ere etxez etxe ibiliko dira Anizko haurrak *Urte berri berri* kantari. 10:30ean mandarrak gerrontzerat lotu eta berriz ere etxez etxe: etxeko larrainean *urte berri-berri, zer dakarrazu berri*... kantatu eta etxeko andre edo gizonak xaretoan dituen mandarinak, giltxaurrak, goxoak... lurrera botako ditu eta haurrak laisterka joanen dira mandarrerat biltzeko.

Haurrak urtats egunean Anizen.

Inauteriak

Baztango lehenbiziko inauteriak izanen dituzte Anizen. *Ofizialak* mugikorrak izaten dira, ilargi betearen arabera, gure kasuan errege eguneko ondoko asteburuan izaten dira. Ilbeltzaren 18an, ortziralean, afaria eginen dute gazteek elkartean. Biharamunean, elkartean gosaldu ondotik etxez etxe puxkak biltzen ibiliko dira Aniz eta Berroetako gazteak. Gauean, aniztar guztiendako afaria izanen da elkartean, eta afalondoan Mikel Salaberrirekin kantaldi eta dantzaldia izanen dute.

NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Mariano Izeta Bertso Sariketa

Azaroaren 23an jokatu zen VIII. Mariano Izeta Aariketako finala Arizkunenean. Etxarri Aranazko Saats Karasatorre izan zen txapeldun eta gibeletik sailkatu ziren Josu Sanjurjo lesakarra, Mikel Lasarte, Sarai Robles, Irati Majuelo eta Oronoz-Mugairiko Amaia Elizagoien.

UTZITAKO ARGAZKIA

José Bovéren solasaldi arrakastatsua

José Bové Frantziako nekazari-sindikalista entzuteko Arizkunenea kultur etxeko sabaiak gainezka egin zuen. Landa eremuen eta nekazaritzaren etorkizunaz aritu zen, Mixel Berhokoirigoin Euskal Herriko Laborantza Ganbarako lehendakari ohia ondoan zuela luzaz mintzatu zen.

Zubietako joaldunek ere parte hartu zuten kantu zaharren egunean. JM ONDIKOL

Eskualdeko ordezkaritza Lleidan, sari banaketaren ondotik. UTZITAKO ARGAZKIA

XV. Kantu Zaharren Eguna bikaina izan da Dantxarinean

500 lagun bildu ziren Lugaranan eta Joseba Sagastibeltza, Mikel Erramuzpe eta Joseba Ezkurdia omendu zituzten

TTIPI-TTAPA

Dantxarineko Lugarana jatetxean ospatu zen azaroaren 24an Kantu Zaharren Eguneko hamabosgarren edizioa. Euskal Herri osoko 500 lagun bildu ziren Angel Mariezkurrenak antolatutako jaialdian. Aurtengoan omenaldi hirukoitza egin zuten: Joseba Sagastibeltza Leitzako dantzariak, Mikel Erramuzpe Aldudeko musikariak eta Joseba Ezkurdia Arbizuko pilotariak bere oroigarriak jaso zituzten, baita Aitor Mendiluzeren bertsoak ere. Zubietako joaldunek eta Bankako Menditarrak taldeak ere ez zuten hutsik egin urtetik urtera sendotzen ari den ospakizunean.

Bankako Menditarrak Jaliskorekin.

Porc D'Or sariak lortu dituzte lau zerri-hazlek

Elizondoko Vicente Mendiburu, Urdazubiko Jose Joaquin Elorga, Etxalarko Mikel Irigoien eta Zugarramurdiko Maria Sansiñena

TTIPI-TTAPA

IRTA erakundeak, espainiar estatuko zerri haztegi onenak saritzeko asmoz antolatutako Porc D'Or lehiaketaren 25. edizioko sariak banatu zituzten azaroaren 23an Lleidan (Katalunia). Denera, 49 sari banatu zituzten espainiar estatu osoko zerri-hazleen artean eta horietatik lau eskualdera etorri ziren.

Honela, Elizondoko Vicente Mendiburu Mendibururen eta Urdazubiko Jose Joaquin Elorga Galainenaren esplotazioek, erditze-tasari dagokion lehen kategoriako zilarrezko eta brontzezko sariak lortu zituzte, hurrenez hurren. Etxalarko Mikel Irigoien Irazokiren eta Zugarramurdiko Maria Sansiñena Suhasen esplotazioek, berriz, zilarrezko eta brontzezko sariak lortu dituzte longebitate edo bizi-luzetasunari dagokionean.

Ez da lehenbiziko aldia eskualdeko zerri-hazleak lehiaketa entzutetsu honetan sarituak suertatzen direla, egindako lan onaren seinale.

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3.km URDAZUBI

ttipi-ttapa
T. 948 635 458
erran.eus | info@ttipi.eus

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitorpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Togoko ordezkaritza, Saint Christophe lizeora egindako bisitan. BENOÎT VERDENAL

Benoit Verdenal, Togoko lehendakariarekin, 2017an. T. JACOB (SUDOUEST)

Arrain hazkuntza ezagutzera etorri dira Togotik gurera

Hango teknikari eta enpresen buruak formatzeko, hemengo amuarrain hazkuntzak eredutzat hartuko dituzte

PIERRE BASTRES

Saint Christophe lizeoaren berezitasuna arrainen hazkuntza da. Eskola horri esker, Euskal Herriko eta bertze eskualdeko gazte ainitz teknikari edo enpresaburu bilakatu dira. 2016ko hazilean Togoko politikari talde bat etorri zen Europarat, laguntzak atzemateko arrain hazkuntza eskola bat sortzeko asmoz. Bisita horri esker Senpereko eskola eredutzat hautatu zuten. Geroztik harremanak azkartu ziren Benoît Verdenal (Lizeoko burua) eta Togoko ordezkarien artean, eta gan-etorri ainitzen ondotik, Togoko lehendakariak Arrain Hazkuntza Institutuaren (IFAD) lehen harria zutik eman zuen 2017ko abenduaren 5ean, Verdenal jauna gomitatua zelarik. Eraikina eginda, bortz arduradun Euskal Herrirat hurbildu ziren hazilaren hondarrean, hemengo lan-moldeak ikasteko, gero hango gazteei erakusteko. Kaberouka jauna ministroaren laguntzailea da, eta egindako elgarlana goretsi zuen: «miresten dut gure Senpereko lagunen lana eta jokabidea, egitasmoa gauzatzeko urrats guzietan gure ondoan ziren, diseinutik instituaren eraikitzeraino. Hirur urteko ibilbidearen ondotik, lehenbiziko ikasleak aterako dira 2019an. Egiazki bidea luzeagoa izan da, Indepentziaren ondotik (1956-1960), arrain hazkuntza garatzen hasi ginen Togon, baina ez da sekula handitu eta azkartu. Haatik behar handietan gara aspaldi». Benoit Verdenalek baieztatu zuenez, «100.000 tona arrainen beharra dute urte guziz, 130 tona ekoizten dituzte eta 30.000 tona kanpotik sarrarazten; horrek erran nahi du 70.000 tonako eskasia badela».

Hein hortarat heltzeko teknikak eta hazkuntzen antolakuntza ikustea zen bisitaren helburua, Tonignié jaunak argitu zuen bezala: «hemen baloreak eta zorroztasuna sumatu ditugu. Bertzalde ingurumena ez andeatzearen arrenkura handia dute hazleek. Teknikariak behar ditugu sortu, ekoizpena hobetzeko, baina ez hori bakarrik. Helburua herrian enpresen sortzea da, lan iraunkorra eta janari-independentzia erdiestea». Honetaz gainerat, Tongnié jaunak eredu ekonomikoa ere azpimarratu zuen: «egun hiru hazkuntza bisitatu ditugu, Banka eta Baigorrin. Ongi ikusi dugu bere hazkuntza sortu nahi duen gazte batek inbestimendu ttikiak egin behar ditu hastapenean. Pittanaka inbertitu behar da, eta familiak laguntzen ahal du tripa husteko edo larrua zuritzeko lanetan. Sos pixka bat bazterturik behar da tresneria erosten hasi». Azkenik «hemen ikusi eta ikasitakoak eta tresneriak gure beharretara nola egokitu asmatu beharko dugu», aipatu zuen Tomy jaunak.

Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 22an etorriko dira

16:00etatik goiti krakada, kalejira, musikariak, kantariak, Pontx pailazoa, aperitifa... izanen dira

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko bertze tokietara ailegatu aitzinetik, Saran eginen dute geldialdia Olentzerok eta Mari Domingik. Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, eskola publikoak, Olhain ikastolak, merkatarien elkarteak eta Herriko Etxeak gomitatuta, bisitan izanen baitira abenduaren 22an. Eta behar bezalako ongietorria egiteko, hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

16:00etan plazan egin dute hitzordua eta eguneko bi protagonistak hurbildu bitartean, haurrei krakada eskainiko diete. Burasoek, berriz, arno beroa hartzeko aukera izanen dute. Pontx pailazoa ere plazan izanen da haurrei ikusgarria eskaintzeko.

17:30 aldera Olentzero eta Mari Domingi ailegatuko dira eta beraiekin plazan itzulia eginen dute kanta eta musika lagun dutela. Ondotik, neskamutikoek Olentzerori eta Mari Domingiri kantak eskainiko dizkiete eta horrekin batera, musu emateko aukera ere izanen dute, baita karroan itzuliak egiteko parada ere. Segidan aperitifa izanen da herriko kantariek eta musikariek alaitua.

Herritarrei parte hartzeko gomita

Antolatzaileek haur, buraso eta familiako gainerako kide guztiei parte hartzeko deia egin diete. Eta horrekin batera, baserritarren arropak janzteko mezua ere luzatu dute, «kriseilua ahantzi gabe, Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorririk beroena egiteko gisan».

PANTXIKA PATERNE

171 Ahobizi eta 49 Belarriprest Saran

Sarako 171 Ahobizik eta 49 Belarriprestek parte hartu zuten abenduaren 3an finitu zen Euskaraldian. Tarte horretan, hainbat izan ziren ekimena babestu zutenak, ikastola eta turismo-bulegoa, erraterako. Orain, 11 egunetan hartutako ohiturak urteko gainerako egunetara zabaltzea gelditzen da...

GANEX

Eguberrietako merkatu arrakastatsua

Bertze urte batez, jende ainitz hurbildu zen Saint Joseph eskolako burasoek hazilaren 24an antolatu zuten Eguberrietako merkatura. 09:00etatik goiti artisau eta sortzailez bete zen Lur Berri gela, eta haurrek aurpegiak margotzeko aukera ere izan zuten.

GANEX

80 urte bete dituztenen bazkaria

1938an sortutako Sara, Zuraide eta Ainhoako kintoek elkarrekin ospatu dute 80 urte bete dituztela. 40 bat lagun elkartu ziren eta tartean hamar saratarrak –argazkian batzuk–. Goizean meza eman zuen Joakintxo Jauregi saratar apaizak –argazkian–, eta ondotik, Ainhoan bazkaldu zuten.

Beti Gazteko tiralariak, Lesakan jokatutako azken jardunaldian lortutako txapelekin. Eskuinean, parte hartu duten talde guztiak. UTZITAKO ARGAZKIAK

Txapel guztiak jantzi ditu Beti Gaztek Nafarroakoan

Azkeneko tiraldiak Lesakan egin zituzten azaroaren 24an eta gizasemeek 600 kilokoan eta talde mistoak irabazi zuten

TTIPI-TTAPA LESAKA

Beti Gazte sokatira taldea jaun eta jabe izan da aurtengo Nafarroako sokatira txapelketan. Lehenik, emakumeen txapelketa seinaka eta gizasemeen 640 kilokoa (zortzinaka) irabazi zituen eta gero, txapelketa mistoa (550 kilokoan) eta gizasemeen 600 kilokoa lortu ditu, biak zortzinaka. Kategoria horietako bi saioak eskualdean jokatu ziren, Elizondon eta Lesakan, eta hortaz, etxean paratu zituzten txapelak lesakarrek.

Azaroaren 24ko azken saioan tiraldi guztiak irabazi zituzten, bai gizonezkoek, baita talde mistoak ere.

Gizonezkoetan, Carmelo Mitxelena, Beñat Ordoki, Beñardo Iantzi, Unai Gurrutxaga, Eneko Saldias, Alejo Sarobe, Iñigo Altzugarai eta Paskual Taberna aritu ziren. Beti Gazteren ondotik, Berriozar sailkatu zen bigarren, Txantrea hirugarren eta Antsoain laugarren.

Talde mistoan, berriz, Carmelo Mitxelena, Kristiñe Txoperena, Maddalen Lopez, Beñat Ordoki, Unai Gurrutxaga, Karmele Pikabea, Udane Loidi (Oiartzun) eta Gerardo Telletxea aritu ziren. Lesakan Txantreak eta Berriozarrek berdindu egin bazuten ere, bigarren postua Txantreak eskuratu zuen eta hirugarrena Berriozarrek. Laugarren Antsoain B izan zen eta bosgarren Antsoain A.

Euskadiko 4x4 finalera

Nafarroakoa jokatu bitartean Euskadiko 4x4 sokatira txapelketan ere hasia da Beti Gazte. Txapelketa mistoa irabazi zuen 280 kiloko kategorian eta orain, emakumezkoen nahiz gizonezkoen finaletarako txartelak eskuratu ditu, 260 eta 300 kiloko kategorietan, hurrenez hurren. Abenduaren 16an Laukizko (Bizkaia) pilotalekuan jokatuko dituzte finalak (11:30). Emakumeek Badaiotz A eta B, Txantrea, Ibarra eta Gaztedi izanen dituzte arerio; gizasemeek, Ibarra, Txantrea, Gaztedi, Ñapurrak eta Berriozar.

Euskadiko koxkor biltze txapelketan bigarren izan da Fernando Etxegarai

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 2an jokatu zen Arratzuko (Bizkaia) frontoian Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa eta bi segundo eta 29 ehunenengatik jantzi zuen txapela Txantreako Aitor Blanco nafarrak. 6 minutu 14 segundo eta 44 ehunen behar izan zituen 50 koxkorrak biltzeko. Bigarren sailkatu zen Fernando Etxegarai beratarrak, berriz, 6 minutu 16 segundo eta 73 ehunen behar izan zituen. Beraz, ezin izan zuen bere hamabigarren txapela jantzi Berako kirolari handiak.

Nafarren gibeletik sailkatu ziren Aritz Martin eta Patrik Saitua bizkaitarrak. Martinek 6 minutu eta 19 segundo egin zituen podioaren hirugarren koxkara igotzeko eta Saituak 6 minutu eta 24 segundo.

Arabako Aritz Ruiz bosgarren izan zen (06:25), Arabako Guillermo Lopez seigarren (06:53), eta Gipuzkoako Uxer Mozo zazpigarren (07:05) eta Mattin Jauregi zortzigarren (07:13).

Finalean aritu zen zortzikotean, Aitor Blanco txapelarekin. BIZKAIKO HERRI KIROL FED.

Urtea akitzeko, Euskadiko lasto-jasotze eta harri handien harri-jasotze txapelketak jokatuko dituzte abenduaren 22an Gipuzkoan, Mutrikun eta Asteasun.

MENDIALDEA GARBIGUNEAK

irekiera abenduaren 17an

ORDUTEGIA

Leitza

Asteartero: 10:00-16:30
Ostegunero: 15:30-19:00
Hilabeteko 2. larunbatean: 10:00-13:00

Goizueta

Astelehenero: 12:30-16:30
Hilabeteko 1. larunbatean: 10:00-13:00

Zer ekarri dezakezu?

Zer ezin duzu ekarri?

Bestelako hondakinak ekartzeko aurretiko baimena Mankomunitatean eskatu

Mendialdea Mankomunitatea info@mendialdea.eus 948 510 444

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Mendialdea Mankomunitatea

residuos de navarra
nafarroako hondakinak

AGENDA

ABENDUAK 14-URTARRILAK 10

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

ELIZONDO
'Zad bizi dutenen ahotik' liburuaren aurkezpena
Amezti elkartean, abenduaren 20an, 19:30ean.

IGANTZI
Biltoki elkarteko bilkura
Biltokin, abenduaren 23an, 17:00etan.

ETXALAR
Aurrekontuak hizpide
Udaletxeko Batzar Aretoan, abenduaren 13an, 19:00etan.

IKASTAROAK

GOIZUETA
Errege-opilak egiten ikasteko
Eskolako jangelan, abenduaren 15ean, 10:30etik 13:00etara.

SARA
Eguberrietako apaingarrien tailerra
Lur Berri gelan, abenduaren 18an, 14:00etatik 18:00etara (25 euro).

ELIZONDO
'Jolastuko gara?' ikastaroa
Arizkunenean, abenduaren 18an, 17:00etan.

KONTZERTUAK

ZUBIETA
Tinkabella taldea
Herriko Ostatuan, abenduaren 14an, 22:30ean.

Eguberrietako entseguak
Abenduaren 16an eta 23an.

BERA
Trikitilari eta akordeoilariak
Musika Eskolan, abenduaren 14an, 18:00etan.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

DONEZTEBE **Santa Luzia Egunaren harira, azoka**
Eskulangile eta artisauak, musikariak, elkartasun egitasmoak...
Abenduaren 16an.

Abesbatzaren eta txistularien kontzertua
Kultur Etxean, abenduaren 22an, 19:30ean.

Kalejira herrikoia
Abenduaren 24an, 16:30ean, merkatu plazatik hasita.

Piano kontzertua
Kultur Etxean, abenduaren 18an, 18:00etan.

Eguberrietako kontzertua
San Esteban elizan, abenduaren 19an, 18:00etan.

Glin-glan
Abenduaren 31n, 15:00etan hasita, herriko karriketan barna.

ZIGA
Eguberrietako kontzertua
Elizan, abenduaren 15ean, 17:30ean.

DONEZTEBE
Abesbatzaren kontzertua
Elizan, abenduaren 15ean, 20:00etan.

ELIZONDO
Ionica taldearen kontzertua
Arizkunenean, abenduaren 16an, 19:00etan.

LESAKA
Musika Eskolako ikasleen kontzertua
Elizan, abenduaren 19an.

AMAIUR
Eguberrietako kontzertua
Elizan, abenduaren 29an, 18:00etan.

OSPAKIZUNAK

DONEZTEBE
Mendiaren Eguna
Ibilaldia, bideo-proiekzioa...
Abenduaren 15ean.

BERA
Josu Goiari omenaldia
Kultur Etxean, abenduaren 16an.

SUNBILLA
Kanpineko denboraldi bukaera
Abenduaren 15ean.

Iker Espelosin zenari omenaldia
Abenduaren 22an.

GOIZUETA
Nazioarteko festa
Abenduaren 22an.

Umore Onako bazkideen eguna
Abenduaren 16an.

DONEZTEBE
VIII. Areto Futbola txapelketa
Abenduaren 23tik 31ra.

Santa Luzia eguneko ospakizunak
Abenduaren 13an.

ETXALAR
Herriko Ostatuaren III. urteurrena
Abenduaren 28an eta 31n.

AZOKAK

BERA
Bertako ekoizleen merkatua
Rikardo Barojan, abenduaren 15ean, 10:00etan.

LESAKA
Argitsu elkartearen azoka
Lesakako plazan, abenduaren 23an, 10:00etatik 17:30era.

DONEZTEBE
Artisauen erakusketa
Abenduaren 16an.

IRTEERAK

ELIZONDO
Iparlara
Plazatik, abenduaren 16an, 07:30ean.

DONEZTEBE
Saioara
Autobus geltokitik, abenduaren 24an, 07:30ean.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

ANIZ Eguberrietako ospakizunak

Olentzeroren etorrera, afariak, urtatsak... xehetasunak 50. orrialdean.
Abenduaren 24tik 31ra arte.

ZOZKETAK

DONEZTEBE
Merkatari Elkartearen zozketa
Abenduaren 16an.

Errekako saskiaren zozketa
Abenduaren 20an, 20:00etan.

IKUSKIZUNAK

ARANTZA
Eskolako ikasleen antzerkia
Abenduaren 14an eta 19an herritarrentzat eta Etxalar eta Igantziko ikasle eta irakasleentzat, hurrenez hurren.

DONEZTEBE
'Lau aulki hirurendako' antzezlana
Zineman, abenduaren 15ean, 18:30ean.

Firin Farandula taldea
Zineman, abenduaren 23an, 16:30ean.

***Crossfit* eta herri-kirol desafioa**
Ezkurra pilotalekuan, abenduaren 22an, 18:00etan.

LESAKA
'Manifestu bat' antzezlana
Zineman, abenduaren 16an, 18:00etan.

SUNBILLA
Ikasleen jaialdia
Eskolan, abenduaren 21ean, 09:15etik 10:45era.

ITUREN
Eguberrietako jaialdia
Eskolan, abenduaren 21ean.

IRURITA
'Hartz eta otsoekin lotan' bideo emanaldia
Gizarte Bilgunean, abenduaren 28an, 20:00etan.

GOIZUETA
'Olentzero eta subilaren lapurreta' filma
Ganbaran, abenduaren 30ean, 17:00etan.

Nire aukera

«Belarriprest roletik Ahobizi izatera pasatzea dut amets»

LETIZIA FORACCHIA URDAZUBIN BIZI DEN ITALIARRA

«Reggio Emilian (Italia) sortu nintzen baina duela ia bi urte etorri nintzen Euskal Herrira». Horrelaxe aurkeztu du bere burua Letizia Foracchiak. Gaur egun, astegunetan Igeldon bizi da, baina asteburuak Urdazubin pasatzen ditu: «Donostian lan egiten dut baina nire bikotea urdazubiarra da». Lehendik ere ezagutzen zuen herria eta zehazki, «herriko lasaitasunak eta eguneroko presatik alde egiteko aukerak» erakarri zuen 29 urteko gaztea. Euskal Herrira etorri zenean «hizkuntza aldaketa, lagunartea sortzea eta lana aurkitzea» izan zen zailena. Baina «pixkanaka-pixkanaka» hirurak lortu ditu. Areago, gaur gaurkoz, Urdazubin «etxean bezala» sentitzen da. Hizkuntza ikasteak «aunitz» lagundu diola onartu du: «herrian bizitzeko ez da beharrezkoa baina bai lagungarria». 2017ko udan hasi zen euskara ikasten, «kuriositateak eta beharrak» eraginda. Gaur egun «Donostiako euskaltegi batean, hamairu ikasleko talde jator batekin» dabil eta «astean bitan» biltzen dira. Integratzeko ez ezik, «bertako kultura ezagutzeko» lagungarria izan zaiola kontatu digu. Euskaraldian ere parte hartu du: «oraingoz Belarriprest rola hartu dut, baina egia erran emandako urratsez harro nago, ingurukoek ere alaitasunez hartu dute. Noizbait Ahobizi izatea gustatuko litzaidake». Kontent dago Euskal Herrian, gustura Urdazubin, baina bada faltan botatzen duen zerbait: «sorterriarekin komunikazioa hobetzeak gauzak erraztuko lizkidake». Italian dituen «familia eta lagunen hutsunea» sentitzen du, baita bertako «janariarena» ere. Hortaz, «urtean hiruzpalau aldiz» joaten da: «udan, Aste Santuan, Eguberrietan edota gertakari bereziren bat dagoenean». Bidaia horietan bere zoriontasunaren oinarri diren «pertsona maitatuak» ikusteko ez ezik, «pizzak dastatzeko» aukerarik ez du galtzen. Itzuleran, Urdazubiko bisitak, «Alkerdiko ermitara ibilaldi eder bat egitea, lagunekin trago bat hartzea, afari eder bat egin eta lo asko egitea» bezalakorik ez dago. Baten edo bertzearen falta duenean mapamundia eskuetan hartu eta distantzia ttikia dela ikustea lagungarri zaio.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenengo solairuan, erdigunean kokatua, Alzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua dago, sukaldea estreinatu gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎ 608 77 79 26.

LESAKA. Etxe dotorea salgai (hobekuntza aunitz ditu). Salmenta presazkoa da. Eskaintzak onartuko dira. ☎ 609 47 72 77.

GOIZUETA. Pisua salgai, 3. solairuan. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Balkoi ederra du, trasteleku ttiki bat ere badu eta garaje ttiki bat. ☎ 948 51 03 69.

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Granadako kosta tropikalean, partikular batek lagun bat edo birentzako aparthotela errentan emateko du, neguan. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terraza, aire girotua eta hagitz ongi hornitua. Abenduaren 15etik martxoaren 31ra errentan. ☎ 658 94 37 02.

BERA. Itzea karrikan apartamentua errentan emateko. ☎ 609 97 33 06.

KONPARTITZEKO

BERA. Pisua konpartitzeko jende bila. ☎ 602 82 23 74.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Jubilazioagatik Garbi-Leku garbitegia edo labanderia errentan emateko. ☎ 948 63 74 38 / 600 65 70 20.

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute lanaldi osoan aritzeko. ☎607 82 73 09.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 — www.erran.eus

744 48 43 61 — info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LEITZALDEA. Komertzialak behar dituzte. Bidali curriculumak *RRHH@logikaline.com*era edo deitu telefonoz. ☎943 31 86 06.

ESKARIAK

Neska bat lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziaduna, garbiketa lanetan eta ostalaritzan interesatua. Adinekoak zaintzeko interna edota orduka lan egiteko prest. ☎ 644 93 62 74.

Gizonezkoa lan bila. Ostalaritza arloan esperientzia handia duena, koktelak egiten ezagutza handia, baita sukalde lanetan ere. Adinekoak zaintzen ere ezagutza eta esperientzia. Ostalaritza eta adinekoak zaintzeko pertsona arduratsua behar izanez gero, deitu. ☎ 644 93 62 74.

Gizonezkoa lan bila. Adinduak zaintzen, nekazaritzan eta garbiketa lanetan interesatua. ☎ 631 14 26 85.

BAZTAN. Emakumea lan bila, egunez adinekoak zaintzeko baita garbiketa edota haurren zainketarako ere. Esperientzia lan esparru horietan. ☎644 77 82 12.

Mutila lan bila: garbiketan aritzeko, ostalaritzan zerbitzari edo sukaldari laguntzaile bezala aritzeko eta pertsona adinduak zaintzeko, interno moduan edo egunez. Zerbitzari bezala urtebeteko esperientzia. Mutil arduratsua eta trebetasun sozialekin. ☎ 631 72 01 08.

Neska gaztea lan bila. Haurrak zaintzeko, mendekotasun haundirik ez duten adinekoak interna gisa edo egunez zaintzeko eta garbiketarako prest. Etxeko animalien zaintzan esperientziaduna eta horretan lan egiteko ere interesatua. Arduratsua, trebetasun sozialekin eta ikasteko prest. ☎ 644 85 81 34.

BERA. Emakume euskalduna lanean ariko litzateke: haurrak edo adineko jendea zaintzen, etxeak garbitzen... ☎ 948 63 06 17 / 679 51 48 37.

Ekuatoriar emakumea interna moduan adinekoak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin adineko pertsonen zaintzan. ☎ 689 27 85 29.

Mutil gaztea eraikuntzan, abeltzaintzan edota adineko pertsonei konpainia egiteko lan bila. Esperientzia eraikuntzako laguntzaile bezala baita nekazaritzan ere. ☎ 684 07 44 73.

ELIZONDO. Neska lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko edota ostalaritzan zerbitzari bezala aritzeko prest. Adinekoen eta haurren zaintzan esperientziaduna, baita ostalaritzan zerbitzari bezala ere. Arduratsua eta erreferentziekin. ☎ 631 96 33 75.

ESKUALDEA. Neska bat lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzeko, garbiketan eta ostalaritzan aritzeko prest. Esperientziaduna adinekoak eta haurrak zaintzen, baita garbiketan ere. Prestutasun osoa eta pertsona arduratsua. ☎ 630 36 49 70.

Emakumezko bat lan bila. Adinekoak edota haurrak zaintzeko prest. ☎ 644 78 04 79.

Adinekoekin 10 urteko lan esperientzia duen emakumea lan bila. Zaharetxe askotan lan egina, baita osasun mentaleko zentroetan ere eta etxez-etxeko zerbitzu batean. Mendeko pertsonei gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta emateko ikastaroa egina. Adinekoen zaintzan orduka aritzeko lan bila. Ez daki euskaraz. ☎ 667 60 26 68.

Haurrak edota adinekoak interna bezala zaintzeko, emakumezkoa lan bila. ☎ 630 27 47 38.

Haurrak edota adinekoak zaintzeko lan bila. Pertsona adinduen zainketan urtebeteko esperientzia. ☎ 631 00 44 58.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

• Extra	4,29
• 1.koa	4,07
• 2.koa	3,93

Urruxak: €/kg kanal

• Extra	4,31
• 1.koa	4,17
• 2.koa	4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

• (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

• Urruxak	168,00
• Idixkoak	240,00

Aretze nabarrak

• Urruxak:	150,00
• Idixkoak	170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

• Sortu berriak:	3,29/3,39
• Zaldi-behorrak	1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

• 6-8 kilokoak:	7,60/8,10
• 8-10 kilokoak:	6,30/6,90

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 37 €
Zerri gizena 1,038 €
Zerramak 0,460€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (azaroaren 23tik 30era bitarteko prezioak)

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Katakumeak opari. Ama ehiztari ona. ☎ 652 75 08 17 / 948 61 50 05.

ARANTZA
ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

GANIX
Tallerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan



Collie eta artzain arrazen nahasketa den **zakurra** oparitzeko. ☎ 600 03 53 29.

BERTZELAKOAK

SARA. 40 ardirentzat bazka salgai. ☎ (00 33) 559 54 23 37 (deitu iluntzetan).

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

Azaroaren 15ean Toyota markako **kotxeko giltzak** galdu dituzte Donezteben. ☎ 606 37 39 16.

SALEROSKETAK

GOIZUETA. Negozioa itxi delako, haragi hozkailua (bitrina) salgai. Supermerkatuko balda bakar eta bikoitzak eta egurrezko ogi euskarria. Prezio negoziagarria. ☎ 646 71 17 98.

744 484 361
ttipi-ttapa

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
650 268 301
Jaime Urrutia, 42-2.D ELIZONDO

INDAUTO TAILERRAK ELITE
Mekanika | Elektrizitatea | Pneumatikoak
Peugeot Partner Tepee 1.6
Blue HDI | 100 zaldi | 2016. urtekoa | Alboko 2 ate | Extra guztiak
Toyota Hilux 2.5 D4D
150 zaldi | 2014 urtekoa | rebisio guziekin | urte bateko garantia
Pol. Ind. Ordoki ARIZKUN · www.indauto.es
T. 948 453 488 · M 675 324 960

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak
700€
800€
1000€
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

RENAULT
SANTESTEBAN TAILERRAK
DUSTER COMFORT dci 110 CV 4X4
2018 urtekoa
CAPTUR S-EDITION TCE 120 CV EDC
2018 urtekoa Automatikoa
MEGANE ZEN TCE 130 CV
2018 urtekoa
www.talleressantesteban.com
Leitzoko errepidea DONEZTEBE
T. 948 450 282 · doneztebe@red.renault.es

Lur
Eguberri eta urte berri on!!
ABENDUAK DIC 22 — AFARIA 25€
21.00 (ATE IREKIERA 20:00)
KANTU ZAHAR AFARIA
AHOTSAK
AIRE AHIZPAK ETA ASTEAZKENEKOAK
MUSIKA
JOXE ANGEL
ABENDUAK DIC 25 — SARRERA 13€ KONTSUMIZIO BATEKIN
00:00
EGUBERRI GAUA
KOMERTZIALA& TEKNO
ABENDUAK DIC 28 29 — SARRERA 5€ <2 URTE 2€
16:00-20:00
HAURRENTZAKO PARKEA
PUZGARRIAK, MUSIKA, ESKULANEN TXOKOA...
ABENDUAK DIC 31 — SARRERA 13€ KONTSUMIZIO BATEKIN
02:00
URTE ZAHAR GAUA
KOMERTZIALA& TEKNO
URTARRILAK ENE 5 — SARRERA 13€ KONTSUMIZIO BATEKIN
02:00
ERREGE GAUA
KOMERTZIALA
SARRERAK AURRETIK EROSTEKO
Abenduak 3, 28 eta 29 egunetarako IZAN EZIK
INTZA taberna
BAR MENDI OSTATUA

HERIOTZAK

- **Bernard Boucon,**
  Sarakoa, azaroaren 12an, 71 urte zituela.
- **Laurans Odeite,**
  Sarakoa, azaroaren 13an, 99 urte zituela.
- **Oskar Muñoz Ruiz,**
  Sarakoa, azaroaren 15ean, 52 urte zituela.
- **Jeaume Goyetche,**
  Sarakoa, azaroaren 6an, 78 urte zituela.
- **Bernadette Tessier,**
  Sarakoa, azaroaren 22an, 57 urte zituela.
- **Esther Berrueta Iantzi,**
  Etxalarkoa, azaroaren 24an, 86 urte zituela.
- **Mª Isabel Telletxea Gastearena,**
  Zubietakoa, azaroaren 25ean, 70 urte zituela.
- **Clara Ordoki Biurrarena,**
  Igantzikoa, azaroaren 26an, 88 urte zituela.
- **Miguel Deskarga Bengotxea,**
  Erantsungoa, azaroaren 27an, 89 urte zituela.
- **Federico Legasa Etxepeteleku,**
  Lesakakoa, azaroaren 30ean hil zen, 63 urte zituela.
- **Juan Oteiza Pagola,**
  Berakoa, abenduaren 1ean, 98 urte zituela.
- **Pedro Elizaga Urtxipia,**
  Donamariakoa, abenduaren 2an, 89 urte zituela.
- **Luciano Larrea Gomez,**
  Berakoa, abenduaren 2an, 85 urte zituela.

SORTZEAK

- **Martxel Amorena Brouillard**, Zugarramurdikoa, azaroaren 14an.
- **Iban Larralde**, Sarakoa, azaroaren 2an.
- **Ximun Garat**, Sarakoa, azaroaren 13an.
- **Beñat Gartziarena Ostiz**, Elgorriagakoa, azaroaren 21ean.
- **Ekhi Gartziarena Ostiz**, Elgorriagakoa, azaroaren 21ean.
- **Amane Irurieta Izquierdo**, Alkaiagakoa, azaroaren 15ean.

URTEURRENA

Iker
ESPELOSIN GOIZUETA

Sunbillan, 2017ko abenduaren 17an
I. urteurrena

Egunak joan eta egunak etorri
zure hutsunea dugu igarri.
Beti jendez inguraturik
izan baitzara maitagarri.
Batzuetan txintxaka eta
beste batzuetan bihurri.
Atta, ama, anaia Andonik
maite zaitugu ikaragarri!

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Angel
MIKELARENA AYOROA
Labaki

Elgorriaga 1908/10/01, Elizondo 1938/12/15
80. urteurrena

Falange Tradizionalistak tirokatuta erail zuen Elizondon, Queseria eta Lekueder etxeen inguruan. Arizkungo Mejikokobordan bizi zen. Emaztea haurdun eta bortz ume utzi zituen.

Egia, justizia eta oroitzapena.

BERE FAMILIA

OROIGARRIA

Manuel
ETXEBESTE LEGASA

Lesakan, 1928/10/14 - 2018/11/19

Zure lana, laguntza
eta maitasunagatik
bihotz-bihotzez milesker.
Gure bihotzetan zaude betirako.

ZURE FAMILIA

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortzirietan eta Malerrekan
IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO
Hurbiltasuna eta begirunea
T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak
24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04
BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA
TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

BB
BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak
BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: **funerariabaztanbidasoa.com**
Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO **ETXEETAKO ZERBITZUAK** ere
24 ORDU 365 EGUN
948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeko

ZOZKETAK

Errigorako kaxak Ttipi-Ttapako irakurleentzat. Iragarri bezala, Errigorako produktuekin osatutako hiru kaxa zozketatu ditu Ttipi-Ttapak harpidedunen artean. Hiru sariak Legasara, Elizondora eta Igantzira joan dira; Silvia Martirena Indart, David Murgia Arano eta Mª Jose Eugi Apeztegia izan dira sarituak. Argazkian hurrenkera horretan ageri dira, Aitor Arotzena Ttipi-Ttapako zuzendariaren eskutik Errigorako kaxa jasotzen.Zorionak hirukote eta gozatu halako produktu goxoak dastatuz!

URTEBETETZEAK

Aiala Seinek urtea bete du abenduaren 10ean. Zorionak etxeko printzesari familia guziaren partetik. Zorionak ttiki!

J. J. Errandonea Dornakuko alkateak abenduaren 13an 58 urte beteko ditu. Zorionak eta agur! Maite zaitugu!

Arraiozko **Oinatz Arraztoa Agerrebere**k abenduaren 15ean 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez gure ehiztari ttikiari, familia guztiaren partetik eta berexiki bere arreba Aioraren partetik. 3 muxu potolo!

Aimar Almandoz Tapiak 5 urte bete ditu abenduaren 11n. Zorionak familia guztiaren eta bereziki Oihaneren partetik. Ongi pasa!

Aunitz urtez **Totu** abenduaren 27an urteak beteko dituzulako. Ez dakit nozbait Izpegi igotzen lagunduko dizugun baina zuk eutsi sasoiari!

Aunitz urtez **Nerea**! Inozente egunean Zubietako gure neskatxak urteak beteko ditu. Ongi pasa zure eguna eta muxu haundi bat lankideen partetik!

Berako **Amaia**k abenduaren 18an urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta ongi pasa zure eguna! Gosariaren esperoan egonen gara! Jijiji...

Zorionak **Naroa**! Azaroaren 20an 6 urte bete dituzulako, muxu haundi bat familiaren partetik.

Aunitz urtez **Irati Perurena**ri! Abenduaren 22an lau urte beteko ditu. Besarkada haundi bat familia guztiaren partetik eta bereziki Beñat eta Udaneren partetik. Lau muxu potolo.

Aunitz urtez atatxo eta osaba **Arkaitz**! Ongi pasa zure eguna eta ez ahaztu bazkari goxoa prestatzeaz. Muxu haundi bat Xabat semearen, Leiane eta Naikari iloben eta familia guztiaren partetik.

Zorionak amatxo! Abenduaren 13an urteak beteko dituzu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik baina bereziki Xabat semearen eta Leiane eta Naikari iloben partetik. Bazkari goxoa prestatu!

PLAZAN BAZAN

ELURRETAN

Bai dibertigarria elurra, ezta? Zoritxarrez, arriskurik ere badu.
Hemen jolasean ari den bat, adibidez, hoztu eta gaixotu egin da. Zein ote da?
Ahoa zabalik du, eta lepoan bufanda. Badu zerbait horia, baina gorririk ez, ezta ubelik ere.
Badu zerbait urdina, baina ez dira prakak.
Eskuak libre dituen arren, badu elur bola bat menpean.

Egilea: **Garbine Ubeda (Aiurri)**

SUDOKUA

Pellozirik elur-bolak bota edo JAURTI dizkio Maripurtzili.
Egin ezazu sudokua, hitz hori osatzen duten letrak erabiliz (J, A, U, R, T eta I).
Gogoan hartu hizkietako bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



		U			
			i	R	
i		J			
		R	J		T
	A	i			
			A		

INTERNETEN ERE BAI !

http://plazanbazan.eus/

Kontsultatu soluzioak:
www.plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

BERAGAIN

Ez zaitez harritu zure balkoia gida turistikoetan agertzen bada

—

ESKAINTZA BEREZIA LESAKAN, BERAKO BISTA EDERRENEI BEGIRA

Honakoa da Beragain Promozioa: (Lesakako) Alkaiaga auzoan, kotxez Berako herrigunetik bortz minutura. Paisaia ederrak eta inguru lasaiak bat eginez, bizimodu paregabea eskainiko dizugu.

- Hiru logela eta bi bainugela
- Bi kotxerentzat tokia duen garajea

Informazioa eta salmenta:

muliate
PROMOCIONES INMOBILIARIAS

Pokopandegi bidea 11, 1º Donostia
T. 943 265 568 | M. 634 907 323
muliate.com

BAZTANGO Inmobiliaria
Kanttonberri 4. Bera | T. 948 630 552 | M. 620 028 625

HIPERSiMPLY

ZORIONAK

Nafar Mendi Merkatalgunea
Arraioz - Baztan - T: 948.452.656 - 09:00 - 21:00

jostailuak
& turroiak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T **948 63 54 58** | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | **erran.eus**

www.ttipitxartela.info

723 aleko irabazleak >

Elkar argitaletxea - 2 CD
Martin Ariztimuno Urrutia | LEITZA
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Javier Ariztegi Juanena | OITZ
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Maite Berasategi Mikelperizena | IRUÑEA
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Rakel Deskarga Oiartzabal | LESAKA
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Josetxo Apezetxea Larraintzar | ERRATZU
Arkupe - Lote bat
Jose Mª Juanenea Lasarte | DONEZTEBE
Elkar argitaletxea - Liburu bat
Ainhoa Etxabarri San Miguel | ORONOZ-MUGAIRI
Elkar argitaletxea - Liburu bat
Mercedes Sansiñena Suhas | URDAZUBI

Gabonetako zozketak

1

Kamiseta bat, Donostiako aquariumerako 2 sarrera, liburuak eta musika sorta bat

2

Eureka! Zientzia Museorako 2 sarrera, liburuak eta musika sorta bat

Liburuak eta musika sorta bat

3